



HAURREN HEZIKETA EMOZIONALA LITERATURAREN BIDEZ

Juan Carlos Alonso

AUGE DEL MÉTODO PEDAGÓGICO MONTESSORI

Ainara Gorostitzu, Teresa Sala

LEIRE BILBAO

Gerraz eta heriotzaz, *Pikondoaren baladan*

JÓVENES Y HÁBITOS DE LECTURA: SAGAS

Xabier Etxaniz Erle

IZEN PROPIOAK:

Miren Agur Meabe · Alba Castellví

Jasone Osoro · Igor Leturia · Miel Anjel Elustondo · John Andueza



Badatoz jolasak! ¡ya vienen los juegos!



Hemen duzu gure dendetan
topa ditzakezun jolas
hezitzaileen gida. Haurrak
jolasten jartzea dugu helburu,
baina neska-mutilen heziketan
eta garapenean lagunduz, aldi
berean.

He aquí la guía de juegos
didácticos que podrás
encontrar en nuestras tiendas.
Nuestro objetivo es hacer
que niños y niñas disfruten, y
contribuir así en su desarrollo
y formación.



elkar
**ARE-
TOA**

INFO + : WWW.ELKAR.EUS/ARETOA

Agenda osoa eskura:



<http://bit.ly/elkar-aretoa>

Montessori botila sentsorialak HAURRENTZAKO TAILERRA



IRAILA REN **16** AN, 12:00 ETAN,
elkar aretoetan:

DONOSTIA: Fermin Calbeton 21
BILBO: Zamudioko ataria Zazpikale
IRUÑEA: Comedias 14
GASTEIZ: San Prudencio 7

Haurren zentzumenak estimulatzeko eta haurrak lasaitzen laguntzeko erabili ohi diren botila sentsorialak egingo ditugu elkar aretoan ikasturte berriko lehen tailerrean.

Lau hiritan egingo dira tailerrak; 4 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutakoak izango dira, eta haur bakoitzak bere botila egin ahal izango du.

Ekimena doakoa da, baina beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Horretarako, idatzi mezu bat

aretoa@elkar.eus

helbidera haurraren izen-abizenak eta adina zehaztuz, eta zein hiritan parte hartu nahi duzuen adieraziz (izena emana duten ala ez baieztatuko da).



elkar
liburu-
dendak

ALGORTA (GETXO)
Telletxe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
94 379 78 29

BAIONA
Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
94 376 40 50

BILBO
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Iparragirre 26
94 424 02 28
Zamudioko
ataria Zazpikale
94 416 14 50

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
94 342 00 80
Fermin Calbeton 30
94 342 26 96

Bergara 6
94 342 63 50
GASTEIZ
San Prudencio 7
94 514 45 01

Apraiztarrak 1
Campus
94 514 16 70
HERNANI
Kale Nagusia 30
94 355 15 37

IRUN
Colon pasealekua 8
94 363 17 26
IRUÑEA
Comedias 14
94 822 41 67

Larraona z/g
Golem eraikina
94 817 55 38
TOLOSA
Arostegieta z/g
94 367 35 33



Science4you

9,99€



**Kandelen
Zientzia**



**Perfumeen
Zientzia**



**Xaboiien
Zientzia**



**Zientzia
Likatsua**



Kimika 600



Giza Gorputza



19,99€

**Ikasi eta
Ondo pasa!**

elkar



ILUSTRADURA: Alberto M. Curto

HAURRAREN HEZIKETA EMOZIONALA

literaturaren bidez

“Kontadazu ipuin bat!” Hurrek txiki-txikitatik adierazten duten etengabeko nahia da hori. Baina zergatik dute hainbesteko garrantzia irakurketak, ipuinak eta, orokorrean, Haur Literaturak haur eta gaztetxoek bizitzan? Zergatik izan daiteke liburua edo ipuina haurrak emozionalki hezteko baliabide egokia?

Intrigazko, beldurrezko, umorezko edo edozein ipuin mirezgarri edo klasiko izan, literaturak haurra izugarri erakartzen du. Zergatik? Bada, aukera ematen diolako bere bizitza eta sentimenduak ulertzeko eta bere nahi psikoafektiboak asetzeko. Hau da, ipuinak haurrari bere “mamu psikologiko” guztiak (beldurrak, gatazka afektiboak, behar moralak –zer dagoen ongi eta gaizki–...), eszenatoki baten bidez aurrean jartzen dizkio, bera konturatu gabe, modu sinboliko batean. Zer gertatzen zaion jakin behar du, bereziki bere sentimenduak ulertu nahi ditu. Baina haurrak errealitatea ez du guk bezala ikusten, sentitzen eta ulertzen. Errealitatea egozentrismotik ikusten du, sentitzen eta ulertzen

du. Zer esan nahi du horrek? Bada, oraindik ez duenez trebetasun kognitiborik, ez duenez arrazonomendua, ulermena eta logika gisako tresna kognitiborik garatu, eta afektiboki ere egozalea denez, errealitatea berak sentitu nahi duela: Ni-a da dena. Ondorioz, fikzioak edo ipuinak eta haurraren maila psikoafektiboak bat egiten dute: fantasia, sormena, pentsamendu magikoa, jolasa... daude beregan, *balitz* bezala da hitza. Horregatik, haurraren barne munduak eta haur literaturak konektatu egiten dute, hizkuntza berean mintzo baitira. Zentzu honetan, ipuinak ez dio haurraren buruari, arrazonomenduari hitz egiten, bere bihotzari baizik.

Baina literaturak zer gehiago ematen dio haurrari ikuspegi emozionaletik? Ipuina irakurtzeko ekin-tza hori guraso edo hezitzailearekin batera egi-ten badu, komunikazio afektiborako ekintza bi-lakatzen da; ipuina bihur daiteke haurraren eta helduaren arteko lotura afektiboa sendotzeko tresna, afektibitate eta konfiantzazko momentu goxoak sortzen dituelako, bere heldu horren den-bora "preziatu" hori berari eskaintzen diolako, *maite duelako*. Zentzu horretan irakurketa, ekintza bezala, bizipen afektibo eta emozionala bilakatzen da. Zeren, gure haur horrek, "kontadazu ipuin bat" esaten digunean, zer nahi du? Noski ipuinarekin disfrutatuz, gozatu nahi duela, hau da, ipuinarekin "sentitu" eta "hunkitu", baina bere heldu horrekin egon ere egon nahi du; haren amodioa, afektibita-tea eta arretea eskuratu bereziki.

Horrez gain, ipuina haurraren heziketa emozionaleko baliabide hobezina da. Ipuinaren bitartez, pertsonaien sentimenduak eta emozioak identifikatzea eta ulertzea lortzen du, "bestearen" azalean jarritz, empatia garatuz; sentimendu aniztasuna bereizten du. Horregatik, ez ditugu zentsuratu behar gai edo sentimendu "ez-korrek" haur literaturan (beldurra, bakardadea, he-riotza...), sentimendu horiek haurrak sentitzen di-tuelako, eta entzun, ulertu, onartu eta tratatu behar ditu eraldatzeko. Hau heziketa emozionalaren arlo ga-rrantzitsuena da. Azkenik, ipuinaren irakaspenaren bi-dez, zein sentimenduk bereiziz, emozionalki gaitasuna garatzen laguntzen dio, zeintzuk errazten diguten el-karbizitza eta zeintzuk oztopatzen.

Baina haurrak liburueta hurbiltzeko, zenbait as-pektu kontuan izatea ezinbestekoa da. Haurraren irakurzaletasuna suspertzeko lehen helburua hau da: ekintza hori bizipen atsegina bilakatzea, zeren atse-gina den hura errepikatzen da; bizipen hori behin eta berriro, grinaz, bilatuko da.

Horretarako zein jarrera diren egokiak eta zeintzuk saihestu behar diren jakin behar dugu. **Daniel Pennac**-ek, *Como una novela* saiakeran, irakurlearen eskubideak



EZETZ ASMATU ZENBAT
MAITE ZAITUDAN

Sam Bratney
KOKINOS

KAMILA
ZEBRA

Marisa Núñez
KALANDRAKA

PU! IZAN AL ZARA,
MARTIN?

David Roberts
ALBERDANIA

MUNSTRO BAT
OHE AZPIAN

Angelika Glitz
TTARTTALO

ZER DA, BA,
MAITASUNA?

Miren Agur Meabe
ELKAR

PERRAULTEN
IPUINAK

Charles Perrault
PAMIELA

*“Ipuinak ez dio
haurraren buruari,
arrazonamenduari
hitz egiten,
bere bihotzari baizik”*

kontuan hartu behar ditugula dio irakurzaletasuna sortzeko. Lehenengoa, ez *irakurtzeko eskubidea* aipa-tzen du. Egia da; irakurtzea ez da obligazio bat, pla-zer bat baizik. Saihestu beharko genituzkeen jarrerak hauexek dira; ez derrigortu irakurtzera; ez elkartu beti irakurketa edota liburua eskolarekin, esfortzuekin; ez eskatu liburua bukatzea gustatzen ez bazaio; edota ez behartu liburua amaitu ondoren “azalpenak” (“ko-mentario kritikoa”) ematera.

Aldiz, beste jarrera batzuk hartu behar ditugu irakur-zaletasuna suspertzeko. Horretarako, txiki-txikitatik ahozko kontaketa ohitu behar ditugu, hitz jolasa edo sehaska kantutik hasita, poesia, ipuin klasiko zein herrikoiei eta genero guztietako testuetara hel-tzeraino. Kalitatezko liburuak eskaini behar dizkiegu, liburutegi edota liburu-dendetara maiztasunez joa-nez eta geure zaletasun propioa kutsatuz. Horre-la, kalitatezko liburuaren bidez “irakurtzen ematen” badiugu, ipuinaren amaiera zoriontsuak dioen be-zala, haurrak “zoriontsu biziko dira”.

JUAN CARLOS ALONSO
Psikologoa



OCTUBRE
ROJO

akal
www.akal.com



1917
La Revolución rusa
cien años después

Juan Andrade y
Fernando Hernández
Sánchez (eds.)

25,00 €



Octubre
La historia de la
Revolución rusa

China Miéville

26,00 €



GALDE TEGIA



Virginia Narbaiza

J.A.Mogel Ikastola (EIBAR)
ACEX liburutegiko arduraduna

A] Ikustekoa izaten da zelako arreta eta interesekin jarraitzen duten haurrek istorioa. Horretarako aurretik nire gustuko ipuina aukeratzen dut eta haurrentzako egokia izango dena. Pentsatzen dut ipuinek balio dutela haurren barruko gatazkak, zalantzak, beldurrak edo nahiak argitzeko eta irudikatzeko. Beraz garapen afektiboan oso baliogarriak ikusten ditut.

B] Haurrari ozen irakurtzen zaionean lortzen duena da hausnarketa une bat. Umea entzuten ari den guztia erlazionatzen dihardu, bere eza-gutzarekin konparatzen ari da, ondorioak ateratu arte.

C] Gai batzuk zuzenean hitz egiteko oso zailak dira, eta ipuinen bitartez berriz, oso ondo landu daitezke. Horregatik ados nago esaten direnean ipuin batzuk une batzuetan "osatzeko" balio dutela.

D] Haurren mundua aberastu, aldatu, alaitu eta abar egiten du fantasiak. Honen bitartez egunerokotasunetik irten daitezke; beste mundu bat amestu, erronkak eta zailtasunak gainditu.

E] Alde batetik dibertigarria izan behar du, emozioak ukitu behar ditu. Hasierako mailetan oso egokiak izaten dira animalien bitartez pertsonen bizipenak eta sentimenduak adierazten dituztenak.

Beatriz Eceiza

Laskorain ikastola (TOLOSA)
H.H eta L.H-ko irakasle ohi, egun orientatzaile



A] Haur Hezkuntzako lehen urteetan haurrari egoera ezberdinetan bere emozioak identifikatzen laguntzen dio ipuinak. Hasera batean, emozio horiek ez ditu bere buruarengan islatuak ikusten, kanpoko pertsonaiengan baizik, eta besteengan ikuste horrek lasaitasuna ematen dio.

B] Haurrari gertatzen zaizkionak besteengan ikustea. Neurri batean ipuinak ziurtasuna ematen dioenez, gaida ipuin bera behin eta berriz entzuteko, eta horrela eskatzen du gainera. Bestetik, haurrak emozioa, irrikia, zirrara, suspensea... sentitzen ditu, eta etapa honetan behar-beharrezkoak ditu bere emozioen mundu hori egoki garatu dadin.

C] Zalantzarik gabe, haurrak dituen estualdiak gainditzeko lagun diezaioke (beldurra baztertuta izateari, min fisikoari, iluntasunari, mamuei, zarata handiei...).

Bidea ematen du larrialdi horietaz hitz egiteko. Ipuinetan tentsio puntua neurtzea garrantzitsua da, neurritz gainditzeko badugu beldur hori areagotu egin dezakegu, beraz kontuz ibili behar dugu.

D] Haurra izatez irudimen handikoa da, baina askotan, zoritxarrez, eta aditu guztiek diotenez, eskolan sartzarekin batera irudimen hau moztu egiten zaio. Geletan orokorrean guztiei gauza bera eskaintzen zaielako, bakoitzaren berezitasunak kontutan izan gabe. Hainbat ikastetxeetan aurrerapauso politikak ematen hasiak gara, haurrari bere irudimena garatzeko eskaintza ezberdinak emanez.

E] Gaur egun emozioak lantzeko ipuin zehatzak daude. Ipuin hauekin emozioak lantzea erreza da, besterik ez bada haurrari berak sentitzen duena adierazten laguntzen duelako.

- A]** Zure esperientziaren arabera zein da ipuinak haurraren garapen afektiboan jokatzeko duen papera?
- B]** Zer bilatzen du haurrak ipuinean?
- C]** Ipuinak terapeutikoak izan daitezkeela uste duzu? Zergatik?
- D]** Zein garrantzi dute fantasiak eta irudimenak haurraren garapenean?
- E]** Nolakoa izan behar du ipuinak haurraren emozioak lantzeko?



Joane Larburu

Maria eta Jose ikastetxea (ZUMAIA)
LH 1.mailako tutore
eta HH 4-5 urteko geletako psikomotrizitate irakaslea

A] Ipuinek egoera eta pertsonai ezberdinen bidez, emozio eta sentimenduak era lasai eta esanguratsuan ezagutzeko aukera luzatzen diete haurrei. Garapen honen baitan ematen diren afektuzko loturen jabetza izateko eta haurraren nortasuna eraikitzeko, oso baliagarriak dira.

B] Haurrak entretenimendua eta entzutearen plazera bilatzen ditu, esaterako, leku eta egoera berrietara bidaiatzea eta abentura ezberdinak bizitzaren gozamenak. Horrez gain, ipuinen egoera edota protagonistarekin bat egitea, identifikatuta sentitzea, konplizitatea... topatu nahi ditu.

C] Ipuinek milaka gauza ezberdin erakusten dizkigute: sormena eraikitzen, bizitzarekiko balore eta ohitura anitzak ezagutzen, komunikazioa sustatzen... Arrazoi hauengatik, istorioak bide-lagun bihurtu daitezke eta eguneroko bizitzan aurrera egiteko erreminta aberasgarri eta erabilgarriak igorri diezazkigukete.

D] Haurrek beraien garapenean irudimentsu izan behar dute, norberaren nahi, ilusio eta ametsek bizitzaren ikuspegi baikorra, sormena eta kreatibitatea eraikitzen baitute. Horrez gain, bidean sor daitezkeen egoera ezberdin edo korapilatsuei aurre egiteko ideiak garatzen laguntzen dute.

E] Ipuinek, haurren emozioen ezagutzan garrantzia handia dute, izan ere, sentitzen ari direna ulertzeko eta hitzetan jartzeko tresna bilakatzen dira. Horregatik, emozioak lantzeko ipuinak hautatzerakoan, haurraren gertuko errealitate bat irudikatzen dituzten istorioak bilatu beharko genituzke; honela, haurrak irakurri edo entzun dezakeenarekin bat egin dezake, eta identifikatuta sentitu.

ALBA CASTELLVÍ EDUCAR SIN GRITAR

Educación sin Gritar es un libro que acompaña en la tarea de educar, que ofrece consejos y alternativas, que aclara algunas dudas y que, sobre todo, trata de transmitir serenidad y confianza. Su autora, Alba Castellví, es educadora y madre, y, además, ofrece talleres a aquellos padres y madres que quieran mejorar la apasionante tarea de educar a sus hijos e hijas.



EDUCACIÓN SIN GRITAR
Alba Castellví
LECTIO

El modo de vida moderno parece haber complicado la aventura de educar a los hijos. ¿En qué flaqueamos los padres y madres de hoy en día? ¿Somos demasiado protectores?

Generalizar es peligroso e injusto pero, si nos tomamos la licencia, he de decir que sí, que, en general, somos demasiado protectores. Deseamos que nuestros hijos no tengan problemas, lo cual es natural, y nos esforzamos en apartar las piedras de su camino. Pero a veces nos pasamos y lo allanamos tanto que no les dejamos aprender a transitar por terrenos tortuosos, algo que posiblemente tendrán que hacer cuando sean mayores.

También puede que exista una mayor conciencia respecto a la educación de nuestros hijos e hijas, y que seamos más exigentes con nosotros mismos.

Así es, afortunadamente. Nuestra sensibilidad educativa ha aumentado, y deseamos ser mejores madres y padres. Hemos de evitar que esta mayor sensibilidad se traduzca en angustia o en sobre exigencia: hay que hacer lo que se puede y, sobre todo, disfrutar de los hi-

jos, que para eso decidimos tenerlos: para crecer juntos. No debemos ser padres y madres perfectos sino felices.

Decir “no” y mantener ese “no” es difícil a veces. En el libro explica muy bien cómo, a menudo, “asociamos la insatisfacción con la infelicidad”. ¿Es esta una de las equivocaciones más relevantes?

Lo es. Poner límites es fundamental y mantenerlos sin alterarnos no es fácil. Ante las rabietas y las presiones, la tentación es ceder. Si cedemos, alimentamos esta forma de proceder de los niños y, lo que es más dañino para una educación emocional de calidad, no facultamos a los hijos para soportar la frustración.

¿Qué opina de las múltiples actividades a las que están apuntados los niños de hoy en día?

Las actividades complementarias moderadas y de calidad pueden ser incluso necesarias. Los dos riesgos a evitar son, en primer lugar, la sobredosis: un niño al que no le queda tiempo para aburrirse es un pobre niño; y en segundo lugar, una presión excesiva: una cosa es el buen aprovechamiento del tiempo y otra no poder disfrutar de lo que uno hace.

“Un niño al que no le queda tiempo para aburrirse es un pobre niño”

Si tuviera que dar tres consejos para desarrollar una buena educación, ¿Cuáles serían?

Decir no con tranquilidad, procurar que los niños deban hacer algún esfuerzo en beneficio de los demás y dejar que vivan las consecuencias de las decisiones que tomen (evidentemente, en una medida soportable y adaptada a su edad).

TERESA SALA
Periodista

WONDER EL ANTÍDOTO CONTRA EL BULLYING

Descubre el fenómeno que ha emocionado a 5 millones de lectores



Descarga la guía didáctica para trabajar el libro en el aula



Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.megustaleer.com

#laleccióndeaugust
#unlibrocontraelbullying



@nubedetinta

EZAGUTZA LIBURUAK, hazteko eta ikasteko BITAMINAK

Liburuak jatetxeetako kartekin konpara ditzakegu: plater bata edo bestea aukeratuko dugu momentuko apetituaren arabera, eta gogo onez dastatuko haren zaporea, izan fantasia, informazioa, kultura edota ihesbide hutsa. Halandaze, kartan zizka-mizkak, arrainak, haragiak eta postreak sailkatuta eskaintzen diren legez, umeentzat hautatuko ditugun materialak ere bereizi beharra dago, batzuetan lapiko berean sartzen baitira irakurle txikientzako liburuak, kontuan izan gabe literatur liburuak ala liburu orokorrak diren.

Irakurtzeko ohitura duen umeak bizkorrago garatzen omen du enpatia-gaitasuna, irekiagoa bihurtuko da egunerokoan sortuko zaizkion arazoei irtenbideak topatzeko orduan, zehatzago adieraziko ditu nahiak, sentimenduak, gogoetak nahiz gertaera arruntak... Horrenbestez, irakurtzea ia-ia jatea bezain premiazkoa zaie, irudimena oinarritzko elikagaia baita osasuntsu haz daitezen.

Alabaina, komeni da dieta osatzea ezagutza-liburu bitaminekin. Sofan eserita edo alfonbran etzanda, helduren baten konpainian edo hain gabe, lasai-lasai orriz orri ikusiz –ez baita derrigorra oso osorik leitzea–, liburu horiek edozein jolas bezain entretenigarriak dira, eta ikasteko tresna aparta. Niri miresmena pizten didate, jakituria modu didaktikoan eta adinari egokitura egituratzeak benetako meritua duelako.

Ezagutza-liburuek ikasleen galderei erantzuten diete, edozein dela ere, haien interesa: natura, espazioa, kirolak, ibilgailuak, animaliak, landareak, historia eta abar luze bat. Gainera, formatuen kalitateagatik



EGIPTOMANIA

Emma Giuliani

TARTALO

EGIPTOMANIA - Gaztelaraz: MAEVA

–tamaina, tapa gogorak, hegal hedagarriak, koloretako fitroak eta beste abar luze bat–, material atseginak dira oso.

Orain dela gutxi aukera izan dut halako liburu bat esku artean erabiltzeko: Egiptomania. Artelana irudit zait

ingeniaritza grafikoaren aldetik, hain dauzka solapa, barne-koadernotxo eta trikimailu plastiko ugari. Horiek guztiak arakatzeara piramideetako galerietan lintera hartu eta barneratzearen antzekoa izan da, aurkikuntzen kate kilikagarria.

Liburuaren sarrerak, Egiptoren mapa bat lagun, Nilo ibaia hartzen du azalpenaren gune gisa. Esan zuen, bada, Herodotok, "Egipto Niloren oparia" dela. Izan ere, Niloren bertute bakarra ez zen izan erresuma bere geografiaren inguruan taxutzea, garraibideak erraztea eta ekonomia garatzea: mitologia aberatsa ere inspiratu zien egiptoarrei, heriotzaren ondoko bizitzaren ulertzeko modu berezi bat.

Jarraian, hainbat atal datoz: urtarokak eta lanbideak, bizimoduak, gizarte-antolamendua, tenpluaren eta jainko-jainkosen ezaugarriak, balsamatzearen erritua, hilobi motak eta horien bilakaera, bihotzaren pisaldia eta eternitate-irrikari lotutako sineskerak... Amaierako ardatz kronologikoak eta hieroglifoei buruzko jakingarriak, besteak beste, erremate arretagarria ematen diote liburuari.

Zibilizazio horrekiko jakin-gosez denak, egin diezaiola hozka liburu horri, eta baietz ase, hazi, hezi eta ikasi.



MIREN AGUR MEABE
Idazlea

Zure pertsonairik gustukoena, eskura!

Goza ezazu Rasirekin jolasean!

LITERATURASM.COM

BESTE ZENBAIT EZAGUTZA LIBURU GOMENDAGARRI


+4



GIZA GORPUTZA
Pascale Hédelin,
Robert Barborini
TTARTTALO

Gure gorputzaren misterioak ikusteko eta haurrei gorputzaren funtzionamenduari buruzko azalpen xumeak emateko liburu ikusgarria. Haurdunaldia, gaixotasunak, giharrek...

+6



YO, PERSONA
Ellen Duthie
WONDER PONDER

El segundo título de las autoras de Mundo cruel. ¿Sabes con certeza que eres una persona? ¿Cómo sabes que en realidad no eres un robot? Si tuvieras dos o tres cerebros, ¿serías dos o tres personas?

+6



NOLA SORTZEN DA EURIA?
Katie Daynes
TTARTTALO

Nola sortzen da euria? Zein da eguzkiaren tenperatura? Nondik dator haizea? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko leihatiladun liburu honetan.

+6



100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO ZIENTZIA
Alex Frith
TTARTTALO

Liburu interesgarri honi esker, gaztetxoek zientziaren mundu liluragarrian murgiltzeko aukera izango dute; Zer da Unibertsoa? Zenbat bihotz dituzte olagarroek? Nola laguntzen diete narbalek ozeanografoei? Zergatik da ezaguna Marie Curie zientzialaria? Eta Einstein?

+8



NIRE ANIMALIEN ENTZIKLOPEDIA
Stéphanie Leduc
SM

Mini-entziklopediak 150 animalia inguru aurkeztu ditu berezko bizilekuz saikaturik. Testu errazen eta argazki harrigarri, dibertigarri eta samurren bidez, gazteenei faunako aberastasunari hurbiltzen laguntzen die.

+8



EL UNIVERSO EN TUS MANOS
Sonia Fernández Vidal
LA GALERA

Cuando Eva sube al desván donde trabaja el abuelo Leonardo, no hay rastro de él. El abuelo es un inventor muy inteligente y siempre explica cosas de ciencia a su nieta. Quizá esta vez ha realizado un experimento peligroso.

+8



NATURAZ GOZATZEKO ESKULIBURUA
Alice James
TTARTTALO

Liburu honetan hainbat ideia aurkituko dituzu kanpora irteten eta naturaz gozatzeko, edozein inguruetan zaudela eta edozein eguraldi egiten duela.

+8



ZIENTZIA HAURENTZAT SEGUNDO GUTXIAN
Jean Potter
ELHUYAR

Sortu tximista bat zure gelan! Mantendu papera lehor uretan! Galdu pisua goiko solairura igota! Iku-si hor ez dauden koloreak! Bizi-zientziaren magia, Jean Potter-ek prestatutako esperimendu eta jarduerak azkar eta erraz hauekin.

+8



ATLAS MONUMENTAL: RECORDS Y MARAVILLAS DE LA ARQUITECTURA
Sarah Tavernier
MAEVA

Descubre obras arquitectónicas de todo el mundo y todas las épocas. Casas, hoteles, museos, lugares de culto, monumentos conmemorativos, puentes, estadios, edificios públicos...

UNA IMPACTANTE NOVELA SOBRE LA VIOLENCIA EN LAS AULAS

«Demoledora».
JORDI SIERRA I FABRA

 **NOCTURNA**
EDICIONES



GAZTEENTZAKO BILDUMAK

gure artean

Irakurzaletasunari buruzko ikerketa guztiek ondorio bera ateratzen dute: haurtzaroan neska-mutikoez asko eta gustura irakurtzen duten bitartean, gaztarora iristean irakurketa mailak jaitsi egiten dira. Hala ere, hori horrela izanik, azken urteotan oso fenomeno bitxia garatzen joan da, gazteentzako bildumak hain zuzen. Gehienok ezagutu dugu oso gutxi irakurtzen zuen gaztetxorekin bat Harry Potter-en liburu bat esku artean zuela. Bilduma hauen jatorria, baina, ez da oraingoa.

Enid Blyton idazle ingelesak 1942 eta 1963 bitartean *Bostak* saileko 21 liburuak idatzi zituen (horietako dozena bat euskaraz plazaratu zituen Elkar-ek 1981etik aurrera). Zalantzarik gabe, hori izan da XX. mendean gehien saldu eta irakurri den gazte literatura sai-



letako bat. 1970eko hamarkadan zabalkunde handia izan zuen gure artean eta ohikoa zen lagunaren artean liburuak trukatzeara eta horrela, apurka, bilduma guztia irakurtzea. *Julen, Dik, Ane, Gorka (Gorkane)* eta *Tim* txakurraren abenturak irensten genituen.

Bilduma horrek eta antzekoek arrakasta handia izan zuten 70eko hamarkadan; alde batetik, orduko egoera sozio-politiko-ekonomikoak ahalbidetu zuen testu berriak, kanpokoak eta merke samarrak, publiko guztiaren artean zabaltzea. Edo horiek edo ezereza; horixe zen garai hartako eskaintza haur eta gazteentzat. Gainera, bilduma hauek liburu soltez osaturik egon arren, elementu komun asko dituzten obrak dira, eta telebistako serieetan edo ikertzaile bera duten nobela poliziakoetan gertatzen den bezala, irakurlea edo ikuslea berehala murgiltzen da trama. Badaki nortzuk eta nolakoak diren protagonistak, aurretik ezagutzen dituen haien gustuak, haien arteko harremanak, eztabaidak, laguntza uneak... eta horrek erraztu egiten du irakurketa. Trama, argumentua da garrantzitsua. Eta honelako lanetan abenturak eta kuadrillaren edo pertsonaiaren garapena lehenesten dira.

Irakurle gazteentzako bilduma berri bat sortu du Jasone Osorok Elkar argitaletxearen eskutik: *Eskularru Beltzak*.

Argia ikusi berri du bilduma honetako lehen istorioak, *Eskularru beltzak* izena daramanak; udazkenean, *Casting-a* izenburuarekin, bigarrena kaleratuko da.

Lagun-talde bat da bilduma honetako protagonista. Beraien arteko harremanak, abenturak, maitasuna, jelsiak izango dira kontakizun hauetako gai nagusiak, baina baita hain agerikoak ez diren beste batzuk ere: barne-segurtasun eza, gazteen ahuleziak eta kemenak, bullinga, harrera etxeak...

Toti Martínez de Lezearen *Nur* irakurri duenak badaki nolako den neskatoa, zer egiten duen eta zein den bere familia. Alde horretatik, berehala murgil daiteke liburuaren abenturan. Eta nork ez du barrerik egingo Anjel Lertxundik idatzitako *Madame Kontxexi Uriberen* nobela poliziakoekin. Eta nola ez gozatu *Katixa Agirrek* sorturiko *Amaia Lapitz* neskato abenturazalearen liburuarekin; Palenquen egon edo Tunisian, irakurleak badu neskatoaren adorea berri.

Oso bestelakoak dira Patxi Zubizarretaren *Usoa*, Anduezaen *Bukowsky kuadrilla* edo Jasone Osororen *Ezeziel* gaztearen bildumak; hauetan abenturetan baino gehiago protagonisten garapenean jartzen delako narrazioaren fokua. Azken idazle honek, *Osorok*, badu beste bilduma bat Jara protagonista duena, eta udaberri honetan bertan hirugarren bati ekin dio: *Eskularru beltzak* izenekoari, hain zuzen. Eta oso normala ez bada ere, ohikoena idazle batek bilduma argitaletxe batean argitaratzea delako, euskal merkatuan erregela horretatik kanpo geratzen diren beste batzuk ere badauzkagu: *Joxemari Iturrallderen Risky* protagonista duten liburuak esaterako, Pamiela, Erein, Elkar eta Ibaizabal argitaletxeen artean plazaratuak.

Edozein kasutan, modu batean nahiz bestean, irakurleak horrelako bilduma bati ekiten dionean badaki zein lurraldetan dabilen, badaki aurrekoarekin gozatu zuen moduan, oraingoan ere ondo pasatzeko aukera handiak dituela.





ARGAZKIA Edu Arrillaga

Gazteak literaturara zaletzeko bideak

Gazteek ez omen dute irakurtzen. Zergatik? Ez zaie-lako gustatzen? Ez direlako beraien gustuko liburuak idazten? Ez delako behar bezala sustatzen zale-tasuna? Erantzun bila jo dugu Elgoibar ikastolara, eta 14 urteko zortzi ikasle zirikatu ditugu berba egin dezaten. Gauza interesgarriak kontatu dizkigute.

“Niri ez zait gustatzen irakurtzea. Niri depende. Niri bai”. Nahiago dute kirola, “nik surfa egitera joateko hartzen dudan trenean irakurtzen dut”, aitortu di-gu Jonek. Eta Nora P.k moda aldizkariak nahiago di-tuela esan digu, edo txutxu-mutxuetakoak. Finean,

bilatzen dutena da ondo pasatzea. Gurasoek etxe-an irakurtzen duten jakin nahi izan dugu. Gehienez-erantzuna ezezkoa izan da. Iratik kontatu digu ahizpa nagusiak asko irakurtzen duela eta hari iku-sita berari ere sartu izan zaiola gogoia inoiz gehia-go irakurtzeko. Paulak irakurtzen duela kontatu digu, “liburutegira joaten naizenean azalari erre-paratzen diot, izenburuari, egileari... Eta amak ere aholkatzen dit zer irakurri”. Jurdana dugu beste le-tra-zale amorratua, “nobela historikoak gustatzen zaizkit, hiztegi aberatsa dutenak, zenbat eta orrialde gehiago, orduan eta hobeto”. Hortxe hasi da talka.

Izan ere, guztiek diote liburu laburrak nahi izaten dituztela, “idazkera zuzena, erraza, dialogo asko, ka-pitulu laburrak, ilustrazioak...”. Nagia sartzen omen zaie liburu bat irakurri behar dutela dakitenean.

Identifikazioa bilatzen omen dute, harremanez hitz egiten duten istorioak, “lagunak, musuak, adar kon-tuak...”, dio Nora P.k. Gustuko dute hizkera gordina, “biraoak ere erabiltzea, guk bezala!”, aitortu digu Jonek. Bilduma zaleak agertu dira gehienak, “bu-katzen duzunean hurrengoa irakurtzeko gogoia dau-kazu”, kontatu digu Nora R.k. “Gaztelaraz edo inge-

Zure **elkar txartela** baita mugikorrean ere!

Txartelaren bidez, gozatu elkar unibertsoaz abantailak eskuratuz

Ekonomikoak

- Liburuetan % 5eko deskontua zure hurrengo erosketan erabili ahal izateko (testuliburuetan izan ezik)
- Papertegian % 5eko deskontu zuzena
- Jolasetan % 5eko deskontu zuzena
- Euskal musikan % 10eko deskontu zuzena
- Ebook-etan % 5eko deskontu zuzena

Kuturalak

- elkar Aldizkaria
- elkar Aretoetako programazio zabala adin guztietako pertsonentzat
- Urtean zehar deskontu bereziak





ARGAZKIA Edu Arrillaga

leseiz liburu asko dago gure adinekoentzat”, esan digu Andreak. Nora R.k azaldu digu berak nahiago duela euskaraz irakurri “baina ez dago non aukeratu”.

Derrigorrez irakurtzen dute maiz. “Eskolan liburua irakurtzeko esaten digute, gero askotan lana eta azterketa dago horren inguruan eta horrek eragiten duena da disfrutea ez baizik lana bihurtzen dela irakurketa”, kexatu da Unai. Zaletasuna sortzeko argi dago ez dela nahikoa irakurri egin behar dela esatea. Gazteek eurentzat erreferenteak direnak irakurtzen ikusi behar dituzte: kirolariak, aktoreak,

politikariak, abeslariak, sukaldariak... Andreak aitortu du bere idoloak ikusiko balitu irakurtzen berak ere irakurriko lukeela gehiago.

“Asko ikasten da irakurtzen”, esan du Nora R.k. Unai gehitu duen bezala, “nire gurasoek beti esaten ditate ortografiak ikasteko modu onena dela”. Komunikatzen ikasteko ere baliagarria da literatura eta badakite, baina gero kosta egiten zaie liburu bat irekitzea. Irekitzea diogu, bai, izan ere, aho batez onartu baitute irakurtzeko askoz nahiago dutela papera liburu elektronikoa baino. Liburu batek pa-

“Eskolan liburua disfrutea baino lana bihurtzen da”

txada eskatzen du, denbora, “eta horrek eramaten zaitu hausnartzera”, dio Iratik, “eta galdera askoren erantzuna ere badago liburuetan”, gehitu du Unai. Dena azkarra den aro honetan letrek eskaintzen dute bizitzari beste modu batera begiratzeko aukera.

Berbarako gogorik ez zaie falta. Berehala piztu zaie berriketarako gogoa, letren inguruko gaia izanagatik ere. Jakin nahi izan dugu ea damutzen diren irakurritakoaz, alegia, ea nahiago luketen sekula derrigorrez libururik irakurri behar izan ez balute. Eta denek erantzun dute ezetz, irakurtzeak asko eman diela, baina horretarako bidea jarri behar dela: gurasoei eskatuz beraiek ere tarteka liburu bat har dezatela. Irakasleei esanaz bestelako inplikazioa eskertuko luketela, liburu bat irakurtzeko obligaziotik haratago. Argitaletxeei proposatuz nerabeei zuzendutako liburuak kaleratzeko, bizi dituzten gaiekin, orrialde kopuru gehiegizkorik gabe, dialogo askorekin, akzioarekin.

Uste duguna baino argiago dute nerabeek zer behar duten gehiago irakurtzeko. Eta baikorrak dira, izan ere, elkartu ditugun zortzi gazteak konbentzitura baitaude etorkizunean gaur egun baino gehiago irakurriko dutela, “denbora gehiago daukagunean”. Hala bedi.

JASONE OSORO
Idazlea



¡Aprende de una forma diferente con MAEVA  young !




HISTORIA



CIENCIAS NATURALES



GEOGRAFÍA



CIENCIAS NATURALES



MAEVA

www.maeva.es

www.yoleomaeva.com

"JARRAITU HAURRARI"

Montessorik duela 100 urte egin zuen proposamen aurrerakoia

"Haurra, pertsona bezala, benetan kontuan hartzen hasi da gizarte hau". Maria Montessoriren *El niño, el secreto de la infancia* liburuko sarrera irakurtzen duenak pentsa lezake gaur editaturiko liburu bat daukala esku artean: "gauzak aldatzen ari dira... Gure metodoak tradizio zaharrak hautsi ditu: haurra geldi egotera behartzen duen bankua kendu du eta irakaslearen plataforma kendu du, hezitzaileak ez baitu gehiago ohiko metodoetan beharrezko diren leziorik eman behar. Gauza hauek eraldaketa sakonago baten azaleko lehen ekintza dira, haurrari bere joera naturalen arabera librekitekiten uztean oinarritzen den eraldaketa".

Badira 100 urte Maria Montessorik (1870-1950) Erromako haur pobreekin eta ezinduekin garatu zuen pedagogiaren klabeak idatzi zituela *El Metodo Montessori* liburuan. Eta berritzailea izaten jarraitzen du. Bogako da Montessori. Eskolak zabaltzen ari dira, liburuak berrargitaratzen, blogak eta webguneak editatzen, jostailuak, materialak eta altzariak merkaturatzen... Kasu ordea, moda bat baino gehiago, filosofia eraldatzailea da Montessorik idatzi zuena. Haurrari eta haurtzarorari begiratzeko ikuspuntu berritzaile bat, denbora, espazioa eta errespetua exijitzen dituen begirada bat.

Baina zer zioen zehazki Maria Montessorik? Bada oso gauza sinple bat: jarraitu haurrari. Montessorirentzat pedagogia tradizionalen akatsa haurra etorkizuneko pertsona gisa kontsideratzea zen, "haurra pertsona da, gaur eta hemen, interes, eskubide eta izate propioarekin", zioen. "Pedagogia zahararentzat haurra ez da ezer, etorkizunean nor izatera iritsiko den izaki bat soilik".

Haurra bada nor, sinplea bezain zaila jarraitzea. Zergatik zaila? Gure hezkuntza- eta haziera-tradizioa Mon-

tessoriren ikuspegiaren kontrakoa izan delako –haurra helduak zizelkatu beharreko orea ezjakintzat hartua izan delako-. Eta beraz, eskola-sistema eta familia-sistemak, orohar, hortik elikatu izan dira. Baina, orain, gauzak aldatzen ari dira...

Askatasuna, limiteak eta errespetua. Horra Montessoriren pedagogiaren hiru gako: "Askatasuna haurraren nortasunaren garapenari mesede egiten dion baldintza gisa ulertu behar da, hala ikuspuntu fisiologikotik nola psikologikotik. Baina askatasun hori limiteekin oso lotua dago eta limiteak, haurren beharrekiko errespetuarekin".

Eta hiru baliabide. Haur bakoitzak bere onena eman dezan eta autonomia garatzeko hiru baliabide erabiliko ditu Montessorik: haurraren konfiantza izango

duen heldu sentibera; haurraren neurria egokituriko ingurune segurua –aulki eta mahai txikiak, etxeko edo lorezaintzako edo eskulangintzako benetako tresneria txikia...– eta Montessori materiala –pedagogoko sorturiko material sentsorial eta psikomotorea, nahiz material eta jostailu autozuzentzaileak eta naturalak-. Montessoriren pedagogiaren helburua haurrari pertsona libre bezala hazten laguntzea baita, eta askatasunerako bidean lehen urratsa autonomia baita. Sinpleki.



AINARA GOROSTITZU
Kazetaria

Montessori metodoaren inguruko zenbait liburu:



¿Qué puede
hacer la pedagogía
MONTESSORI
por tu familia?

10 **Plataforma**
2007 Editorial
2017
10 AÑOS DE AUTENTICIDAD Y SENTIDO



DESCÚBRELO EN ESTOS LIBROS



Imágenes cedidas por el centro educativo ZAPABURU

Un lugar a medida (DE LOS MÁS PEQUEÑOS)

Son muchas las razones que pueden animar a inclinarse por un centro con un sistema pedagógico alternativo. Destacan entre ellas la búsqueda de una educación más consciente; un mayor contacto con la naturaleza; un grupo de niños reducido, o un método capaz de ofrecer una atención más personalizada. En el centro Zapaburu construyen su día a día sobre el respeto a los deseos y ritmos de los más pequeños. Se trata de un espacio educativo basado en la corriente Montessori, al que acuden niños y niñas de entre 2 y 6 años.

Ubicado en el barrio donostiarra de Gros, el lugar ofrece una opción educativa diferente a la planteada por el resto de centros de la zona. Llamen la atención el tamaño de los muebles, la distribución de los espacios, el orden y la armonía. Todo está dispuesto pensando en los niños, todo ha sido creado a su medida. Esto permite que los pequeños se desenvuelvan fácilmente y con libertad. Los materiales son manipulables, predominan la madera, el cristal, diferentes tipos de tejidos, las cuerdas o la cerámica. El plástico brilla por su ausencia.

Maidier Ugarte, educadora del espacio, describe cómo, los niños de Zapaburu “sienten que el espacio es suyo”. “Son protagonistas del lugar, ellos deciden si una cosa se cambia de sitio o no. Es muy bonito ver cómo se manejan de forma autónoma. Piden ayuda si realmente la necesitan, no dependen de una persona adulta para hacer algo que ya son capaces de hacer”, añade.

LA GESTIÓN DE LAS EMOCIONES

Además de pautas creadas por **María Montessori**, en Zapaburu se combinan aportaciones de **Erik Erikson**, **Jean Piaget**, **Rebeca Wild** o **Carl Rogers**. Todas estas corrientes comulgan con las llamadas pedagogías activas, que persiguen “desarrollar el potencial del niño y ofrecer permanentes y diversas oportunidades de aprender y ser”.

Susana Rodríguez lo tuvo muy claro. Llevaba tiempo leyendo e investigando sobre **Montessori**, cuando supo de la existencia de Zapaburu. “Desescolarizamos a Naia y llegamos aquí. Comenzamos así un importante viaje de aprendizaje y trabajo personal”, cuenta. A su juicio, “a los niños hay que darles la capacidad para decidir en

qué quieren trabajar, cuando realmente están preparados para ello, y aquí tienen esa oportunidad”. Naia tiene cinco años y lleva dos en Zapaburu. “Poco a poco estamos aprendiendo cosas y vemos una evolución. Ella está contenta, y nosotros también”, comenta Susana.

Confiesa cómo les han llegado a preguntar si la niña aprenderá a leer o si podrá ir luego a una “escuela normal”, e insiste en que “lo más importante es enseñar a los niños a gestionar sus emociones, sin presionarles con conocimiento”. El temor a que los niños que acuden a este tipo de centros se adapten a una educación más convencional es una de las sombras que planea sobre las pedagogías alternativas. A este respecto, Maidier se muestra segura: “Nuestros pequeños no van a tener problemas, porque saben estar, saben escuchar, respetar y adaptarse”.

TERESA SALA
Periodista

LA ESPERADA SEGUNDA PARTE DE **EL PISO MIL**

UN PASO EN FALSO
PUEDE SUPONER UNA
CAÍDA MORTAL



RBA


ZENBAIT MONTESSORI JOLAS GOMENDAGARRI



VIS-ANIMO

+ 18 hilabete | DJECO

Pieza ezberdinak biribilkatzeko jolas honen bitartez, txikiek motrizitatea lantzeko aukera izango dute. Animalia koloretsuak sortu ahal izango dituzte.



BIDERKATZEKO TAULA

+ 6 urte | ULYSSE

10 digitudun egurrezko taula honetan emaitzak kuboen atzekaldean aurkituko dituzu.



COCCIMEMO

+ 2 urte | JANOD

El objetivo del juego consiste en encontrar parejas levantando los lunares de la mariquita.



CASTLE LOGIX

+ 3 urte | SMARTGAMES

3Dtan blokez-bloke eta dorrez-dorre egurrezko gazteluak eraikitzeko aukera eskaintzen du.



PASABOLAS SPRING A LING

+ 6 meses | HAPE

Utilice las bolas para practicar con el niño la identificación de colores y el contar.



CRAYON ROCKS

+3 años | CRAYON ROCKS

Lápices de cera 100 % ecológicos, en forma de roca, fabricados con cera de abeja, soja y pigmentos naturales.



TAMBAELEFANTES

+2 años | HABA

Los tambaelefantes se pueden apilar de una manera muy divertida unos encima de otros. Las plantillas impresas a doble cara ofrecen tareas con diferentes grados de dificultad.

Montessori jolas gehiago:



<https://www.elkar.eus/jolasak>



Inventa juguetes
para mentes curiosas

IKASELKAR, IKAS-MATERIALA EUSKARATIK ETA EUSKARAZ EUSKAL HERRIRAKO

Jakin aldizkariaren 217 zenbakian, Joan Mari Torrealdai egindako azterketa argitaratu zen¹, 2015eko euskal liburugintzaz. Bertan irakur daitezke ondoko pasarte hauek:

“Hezkuntza materialetan bertokoek beren ekoizpeneko %31,3 titulu kokatu dituzte. Eta kanpokoek euskaraz produzitu duten guztiaren %72,6 hezkuntza material horietan agortu dute”².

“... arazoetan larriena nire ustez zera da, hezkuntza proiektu gehienak (euskarazkoak, erdarazkoak zer esanik ez!) inportaziokoak direla, horien curriculuma Euskal Herrikan kanpo diseinatzen dela. Horrek dakarren soka luzea da oso, euskal geografiaz, euskal historiak, ikuspegi euskaltzaleaz, Euskal Herriaren zatiketa administratibo-politikoaz edo euskal curriculum propio beregainaz...

Eta txarrena: errealitate hori egonkortua dago jada, egun argitan gertatzen ari da, eta euskalgintzak, sektoreak, alderdi politikoak eta administrazioek arreta minimoa jarri gabe.”³

Euskal Herriko haur eta gazteen heziketarako erabiltzen den ikas-material gehiena Euskal Herrikan kanpoko argitaletxeek ekoiztutakoa da, Euskal Herrikan kanpoko ikuspegiarekin. Ikaselkar (Elkar eta Ikastolen Elkartea) eta Erein dira errealitate horri aurre egin eta bertako ikuspegia duen materiala eskaintzen dutenak, bertan eta bertako ikuspegiarekin

sortutako edukiak eskaintzen dituztenak. Irakaskuntzarako ekoizpenaren %31,3 da hori, ez gehiago. Beraz, euskal eskoletan erabiltzen den material gehiena kanpoko argitaletxeetatik eratorritakoa da.

Garrantzi handia du euskal hezkuntza sisteman erabiltzen den materialaren izaerak.

Materialaren bi heren baino gehiago Euskal Herrikan kanpo sortutakoa bada, esan nahi da kanpoko ikuspegiarekin sortutako materiala dela euskal haurren heziketara bideratzen den gehiena. Errealitate horri erantzun nahian, euskaratik eta euskaraz sortutako materiala euskal eskolari eskaintzeko eratu zen Ikaselkar argitaletxea 2011n.



1 TORREALDAI, Joan Mari; “Euskal liburugintza 2015”, *Jakin*, 217, 2016 azaroa-abendua. Donostia

2 TORREALDAI, Joan Mari; “Euskal liburugintza 2015”, *Jakin*, 217, 2016 azaroa-abendua. Donostia. (139. or.)

3 TORREALDAI, Joan Mari; “Euskal liburugintza 2015”, *Jakin*, 217, 2016 azaroa-abendua. Donostia. (139-140. or.)

*Euskal eskoletan
erabiltzen den
material gehiena
kanpoko argitaletxeetatik
eratorritakoa da*

Euskal Herriko ikastetxe gehienek parte hartzearekin eraiki zen Euskal Curriculum 2008-2009 urteetan. Curriculum horrek garrantzi handia du, Euskal Herrian egin delako eta bertako ikuspegiarekin egin delako, eta hori delako aukera bakarra Euskal herriko haurrak euskaldun hezitzeko, hizkuntza ikastearekin batera Euskal Herriaren izaera eta kultura transmititzea ezinbestekoa delako.

Testuinguru horretan ulertu behar da ikasleek eta Elkar-ek urteetan egindako lana eta Ikaselkar sortzeko egindako urratsa, euskal curriculumean oinarrituta eta Euskal herriko ikuspegiarekin hezkuntzarako materiala sortu eta komertzializatzeko helburuarekin.

Ikastolen Elkartearen eta Elkarren arteko harremana aspaldikoa da, eta urteetan aritu izan dira elkarlanean ikas-materialgintzan.

Harreman

IKASELKARREN LEHEN EMAITZA

Ikaselkarren lehen ahalegina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bideratu da: DBHko ziklo osoa betetzeko metodologia eratu du eta materiala sortu, zeina paperean zein digitalean eskolen eskura dagoen. EKI proiektuak bildu du lau ikasurterako eskaintza, ondoko jakintza arloetan: hizkuntzak, naturaren zientziak, gizarte zientziak eta matematika.

*Ikaselkarrek hezkuntza
euskaldunak orain eta gerora
behar duena eskaintzea du
helburu; euskaraz hazteko,
euskaraz hezteko, euskaraz
bizitzeko*

horretan beste urrats bat izan zen bien artean Ikaselkar sortzea, urrats naturala. **elkar** Fundazioaren jardueran irizpideetako bat izan da ahalik eta egiturarik sendoenak sortzea euskal kultur eremura begira, eta Euskal Herriko ikastolekin batera, indarrak bilduz, aukera izan da Ikaselkar sortzeko. Argitaletxea Euskal Herrian egitura propioa izateko eratu da; ikas-materialak ekoitzi, eta euskal hezkuntzak dituen eta izango dituen hainbat beharri aurre egiteko.

Ikaselkar hezkuntza euskaldunaren eragile da, hortik sortu da, horren zerbitzura dago, eta hark orain eta gerora behar duena eskaintzea du helburu; euskaraz hazteko, euskaraz hezteko, euskaraz bizitzeko.

Euskal Herrian eta bertako ikuspegiarekin ikas-materiala ekoizten ari den eragile nagusia da gaur egun Ikaselkar; bertako ekoizpenaren %90etik gora egiten du berak. Euskal hezkuntzarentzat ona litzateke antzeko egitura gehiago izatea.

LANEAN ARI DA

Lehen Hezkuntzarako metodologia egokitu eta materiala sortzea da EKI proiektuaren barruko hurrengo urratsa eta horretan hasita dago Ikaselkar. Proiektuaren lehen materialekin esperimentazio fasea abiatuta dago.

Hezkuntza euskalduna eta kultur transmisioa ditu ardatz Ikaselkarrek, eta helburu horiei begira jarraituko du lanean erreferentziazko argitaletxe izateko, eskolarako eta heziketarako materialak euskal gizarteari eskainiz.





EKI PROIEKTUA

Ikaslekarrek amaitu du EKI DBHrako materialaren ekoizpena.

Duela sei urte hasi ziren diseinatzeko proiektua Ikaslekarren, eta azken 4 urteetan urtez urte maila bakoitzari dagokion proposamena osatu dute, ikasturte honetan laugarren mailarekin DBHrako eskaintza osoa amaituz.

Eklren proposamena berritzailea da, garai berrietara egokitua. Euskal Curriculum du oinarri eta konpetentzietan eta integrazioaren pedagogian oinarritzen da bere metodologia. Pedagogiaren osagai abangoardista horiekin batera, ikaskuntza digitalean ere jauzi kualitatiboa eman du. EKI proiektuaren eskaintza bikoitza da, paperean eta digitalean, biak konbinatuz eta hautu digitala soilik egin nahi duenari bidea erraztuz.

Erronka, orain, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritutako eredu pedagogikoa beste etapetara hedatzea da. Horretan ari dira dagoeneko. Lehen Hezkuntzan, esaterako, 6. mailako unitateak esperimentatzen ari dira hainbat ikastolatan.

Ikaslekar ha completado la oferta de EKI para secundaria. EKI es un proyecto de vanguardia, basado en competencias y en la pedagogía de la integración, que ofrece una propuesta de materiales basados en el curriculum vasco. Desarrollar e implementar este modelo a otras etapas será el siguiente reto.

Eklren ezaugarriak



Euskal Curriculum du oinarri



Ikaslearen irteera-profila du helburu



Oinarrizko konpetentzia orokorrak ikasarloetan lantzen dira



Integrazioaren pedagogia du ardatz



Ikaskuntza kooperatiboa bultzatzen da



Euskararen ardatz turkiko ele-aniztasuna garatzen da



Konpetentzia digitalen lanketa unitate didaktiko guztietan txertatzen da



Oinarrizko konpetentziak ebaluatzen dira



Irakaslearen konpetentzia garatzen da

euskal curriculum

Euskara eta euskal kultura ardatz dituzten gazteak hezten laguntzeko, 2008an eta 2009an Euskal Herriko ikastetxe gehienek elkarrekin eraiki eta onetsi zuten Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum. Ikaslekar argitaletxeak, EKI proiektuan, Euskal Curriculumaren garapen lirakeen ikasmaterialak sortu, ekoitzi eta eskaintzen ditu.

konpetentzietan oinarritua

Ikaslearen irteera-profila: EKI proiektuaren abiapuntu eta helmuga. Edozein bizitza-egoeratan konpetentzia izatea lortu behar du ikasleak: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin behar du.

Ikaslea konpetentzia izan dadin, EKI materialek lau osagai kurrikular dituzte:

- (1) Ardatza: konpetentziak landuz ikasi eta irakasten da.
- (2) Edukiak: euskal kultur ibilbidean eta curriculum ofizialetan oinarritzen dira.
- (3) Tresnak: ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko.
- (4) Eleaniztasuna: euskara ardatz duen hizkuntzen planteamendu integratua egin da.

integrazioaren pedagogiaz

Egoerei irtenbideak aurkitzen ikastea, egoera berrietan ikasitakoa baliatzeko. Benetako egoera garrantzitsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar dute, irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta talde-lanean moldatu, arazoaren soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu.

EKI material berrian Integrazioaren Pedagogia hautatu da, irakasleek errazago irakasteko, ikasleek eraginkorrago ikasteko eta gurasoek prozesu horretan esku hartzeko.



**ATLAS DE CARRETERAS
Y MAPAS NACIONALES**

¡INDISPENSABLES EN TUS VIAJES!

MICHELIN
La mejor forma de avanzar

GALDE TEGIA



Arantxa Beain

DBH1 eta DBH3ko ikasleen ama
IBARRAko UZTURPE ikastolan

Nola bizi duzu guraso bezala seme-alaben EKlren bidezko hezkuntza?

Proiektu berri honekin hasi ginenean kosta egin zitzaion umeei sistema berri horretara egokitzea, ikasteko modua desberdina baitzen. Aurten ere izan dugu beste aldaketa bat: digitalki lantzen dute guztia, matematika izan ezik.

Etxean laguntzen al diezu? Nola hartzen duzu parte prozesu horretan?

Lehenengo urtean alabari dezente laguntzen nion etxean, eta konturatu naiz urteak pasa ahala egokitzen joan dela eta laguntza gutxiago eskatzen didala. Hala ere, egia da batzuetan konplikatu xamarra egiten zaidala laguntza ematea, ez baitut ondo menderatzen materiala nola duten antolatua.

Konpetentziak lantzen ditu EKlren metodologiak. Seme-alaben autonomiaren lanketa nabaritzen al duzu? Zertan?

Aurretik aipatu dudan moduan, alabaren kasuan autonomia asko ari da lantzen. Baina bakoitzak bere prozesua darama. Dena dela, etxerako ez dute lan gehiegirik ekartzen orokorrean.

Zure ikasle garaiko lanketa seme-alabek egun EKlrekin dutenarekin alderatuz, zein aldaketa azpimarratuko zenuke?

Niretzako nabariena da buruz ez dela horrenbeste ikasi behar. Eduki batzuk barneratuz gero, horiek erabiltzen ikasten dute orain. Eta, nola ez, internet eta baliabide digitalek suposatzen duten aldaketa.



Amaia Gereta

DBHko irakaslea ZARAUZKO
ANTONIANO ikastetxean

Zein da EKI metodologiaren aplikazioaren inguruan duzun esperientzia?

Aurretik *Ostadar* materiala erabili nuen eta naturala egin zitzaidan EKI proiektura jauzia ematea. Hasieran, zalantzak izan nituen; ondoren, ilusioa eta segurtasuna: material dinamiko eta eguneratuarekin lan egiteak ikasketa esanguratsuak bermatzen zituela konturatu nintzen.

Nola bizi dute ikasleek konpetentzietan oinarritutako metodologia?

Oso ondo, gero eta gehiago harritzen naute gure ikasleek dituzten gaitasunek, zein lan eta proiektu egiteko gai diren, guk emandako egoera erreale bati aurre egiteko. Haiek ere harro sentitzen dira ikusten dutenean landutakoak dituen erabilera errealeak.

Orain EKI proiektua digitalean ere badago. Erabiltzen al duzue? Nolako da esperientzia?

Bai, aurten lehen aldiz DBH1ean hasi gara. Proiektu digitala eskaini zigutenean zalantza handiak izan genituen. Guraso-ikasle-irakasle arteko konpromisoak hartu genituen. Garrantzitsua izan zen ikasleak proiektuan protagonista jartzea, eta asmatu dugu! Ez dugu inongo arazorik eduki, eta ikasleak primeran moldatu dira.

Zeintzuk dira ikasleengan nabaritu dituzuen garapen nagusiak?

Gehienbat, autonomia eta zentzu kritikoa. Haiek dira gaia ikertu eta informazio egokiena hautatu behar dutenak, gehienetan taldean; horrek lan egiteko modua aldatzen du, adostasunera iristeko besteen iritzia kontuan hartzen baitute.

Nola bizi duzu EKI irakasle moduan?

Urduritasuna eta ilusioa nahasten zaizkit; urduri, nire lana ondo egiten eta metodologia berri honi zuku guztia ateratzen ari ote naizen galdezka; eta ilusioz, ikastordua dinamikoak bihurtu direlako eta ikasleen parte-hartze handia dagoelako. Ikasgaiaren mugak zabaldu egin dira, eta horrek ikasteko modu berriak bilatzera eta probatzera bultzatzen nau.



Elena Gil

DBH4ko ikaslea
DONOSTIAko AXULAR Lizeoan

Zer nabarmenduko zenuke ikasle moduan EKlren inguruan?

Beti teoria ematen egon beharrean, egoera erreale eta adibide gehiago ematen dira, beraz klaseak atseginagoak dira eta askoz ere entretengarriagoak. Baina batzuetan gaia edo helburua zein den ez zait argi geratzen, eta horrek proiektua zailagoa egin dezakeela uste dut.

Bizitzako egoera ezberdinei aurre egiteko gaitasunak lantzen dituzuela uste duzu?

Bai, jarduera gehienek bizitzako egoera ezberdinei aurre egiteko gaitasunak lantzen dituzte. Gehienetan ikasitakoa egoera errealean nola aplikatu ikasten dugu, teoria bizitzako gertae-

retan nola erabili eta errealtateko arazoei nola aurre egin jakiteko.

Ikasteaz gain, atseginak zaizkizu ikastordua?

Bai, oso, orokorrean oso eramangarriak egiten zaizkit, denon artean iritziak eta jardueren emaitzak konparatzeko ariketa asko daudelako.

Zailtasunen aurrean zure burua irtenbideak aurkitzeko gai ikusten duzu? Esperientziaren bat kontatuko al zeniguke?

Zailtasunen aurrean gehienetan irakasleei laguntza eskatzera jotzen dut, baita beste ikasleekin iritzia eta laguntza ere. Zerbait ulertzeko gai ez naizenean, inguruan ditudan pertsonen laguntza jasotzen dut.

IRRIA ALDIZKARIA

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irrien Lagunak Kluba proiektu hezitzaile eta komunikatiboa da, Euskal Herriko haurrei eta hauen hezkuntza prozesuan bidelagun diren norbanako eta kolektibo guztiei euskaraz zuzendutako komunikazio proiektu sendoa sortzea helburu duena.

Haurrak erdigunean jarritz, baina, gurasoak, hezitzaileak eta hezkuntza/gizarte eragileak ahaztu gabe, gure haurren hezkuntzaren ardura jendarte osoarena delakoa.


iRRiA ALDIZKARIA

Proiektu hezitzailearen baitan dugun baliabiderik garrantzitsuena dugu Irria aldizkaria. 2-8 urte bitartekoentzat pentsatuta dagoen hilabetekaria da hau, urtean 10 aldizkari ezberdin argitaratzen ditugu (uztaila eta abuztuan izan ezik), haietako bakoitzean gai jakin bat jorratuz: arauak, elikadura, oporrak...

Guztionez mundu bat eraikitzen laguntzen ditugun balioetan oinarrituta dago aldizkarian egiten dugun lana. Hauek dira ardatz ditugun balioak:

- ✕ Euskara
- ✕ Kultura
- ✕ Mila kolore
- ✕ Bizikidetzatza
- ✕ Partaidetza
- ✕ Ekologia
- ✕ Elkartasuna

Izan ere, helduok, egunero dugu gure seme-alabak oheratzean eta baita beste uneren batean ere, irakurketarako sustatzeko aukera paregabea, Irria aldizkaria edota bestelako ipuinez baliatuz. Elkarrekin une goxoak igarotzeko aukera ematen du irakurketak, eta gainera, txikitatik irakurtzeak, hizkuntza idatzia funtzionalitateaz jabetzen laguntzeaz gain, seme-alabekiko lotura afektibo sendoa finkatzeko balioko du.



**Euskaratik eta euskaraz,
haurrei zuzenduta dagoen
ALDIZKARI BAKARRA!**

HEZIKETAN BIDELAGUN DIREN PERTSONAIK

Irrien Lagunak Klubaren proiektua hainbat pertsonaia ezberdinez baliatzen da aipatutako helburu eta baloreak transmititzeko. Hasierako oinarria Pirritx, Porrotx eta Mari Motots izango baziren ere, haiekin batera, pertsonaia berriak ezagutarazten joan dira, eta, guztien artean, unibertso berria osatzen ari dira.

- ✕ **MARIKALANBRE:** Zientziaren sekretuak ezagutarazten lagunduko die haurrei.
- ✕ **MARTINBERTSO:** Kultura eta sormena, oro har, gustukoa du, bere alor eta edertasun guztian.
- ✕ **LARGABISTA:** Basozaina da, eta naturazale amorratua. Gizon jakintsua da, naturaren sekretuak ezagutarazten dizkiguna.
- ✕ **TIRITATXO:** Osasunari buruzko kontuak, pediatriarekin lotutako zalantzak eta antzekoak erakutsi eta argitzen dizkie irrien lagunei.
- ✕ **ANE PIRATA eta PATAKON:** Biek mundu bat osatzen dute. Elkartasuna eta sufritzen dutenekiko konplizitatea bilatzen dute, desberdintasunen integrazioa.



EGIN iRRiAren HARPIDEDUN!

- ✕ Urtean 45€ ordainduta
- ✕ 44 orrialde koloretan, 10 aldizkari etxean bertan
- ✕ Klubera ongi etorri oparia!
- ✕ Klubeko txartela etxeko txikientzat hainbat abantailarekin

HARPIDETZA EGITEKO:
harpidetza@irrienlagunak.eus | ☎ 902820806



LEIRE BILBAO PIKONDOAREN BALADA

Pikondoaren balada liburu borobila da, metafora ederra eta hunkigarria. Istorio unibertsal honi Lizardi Saria eman diote, ondo merezita gainera.

Zer eskaintzen dio *Pikondoaren balada* liburua irakurleari?

Adibidez protagonista bereziak: pikondoa bera, Martina neskatoa, edota osaba Lukas. Azken honek bizitzarekiko jarrera bitxia dauka: inguruko arazoak modu kontenplatiboaz aztertzen ditu, baina bere barrualdera ere begiratzen du jarrera introspektiboaz. Halako batean, etxe alboko pikondora igo, eta handik berriro ez jaistea erabakiko du. Erabaki zaila den arren, Lukasek emandako hitzari irmoki eutsiko dio azken muturreraino eramanez.

Umeentzako liburua da, baina gerra eta heriotza oso presente daude. Apustu ausarta egin duzu, ala hori da haur literatura interpretatzeko zure modua?

Umeek badakite gaur egun Iraken, Afganistanen edo Sirian gerrak daudela. Orain dela ez hainbeste, gure aitona-amonek hemen bertan gerra latza bizi izan zuten, eta beharrezkoa da gure ondorengoei hori transmititzea. Heriotza ere ezinbesteko gaia da, haurrek ulertu dezaten bizitzaren parte bat dela. Kosta egiten da hau guztia lantzea: nola azaldu, nola kontatu, ze ikuspuntu erabili... baina derrigorrezkoa da gai tabuen inguruan modu naturalean hausnartu eta idaztea.

Biolentzia hurbil sentitu arren, osaba Lukas eta Martina oso ameslariak dira...

Bai. Gaur egun beti esaten digute hankak lurrean



PIKONDOAREN BALADA

Leire Bilbao
ELKAR

eduki behar ditugula. Baina burua eta begirada haratago jarri behar ditugu, zuhaitzekin, txoriekin edota lainoekin jolasteko. Irudimena oso baliabide aberasgarria da, sortzeko eta amesteko; libre sentitu behar gara gauzak aldatzeko. Osaba Lukasek oso garbi dauka irudimenak askatuko gaituela.

Non dago nobelako pikondo magikoa?

Gure baserrietan beti dago zuhaitzen bat sustraiei lotzen gaituena. Irudi polita otu zitzaidan jolasean hasteko. Baina ez da arbola konkretu bat, ez dut herri jakin bat aipatzen, istorioa edonon koka daiteke,



“Gure aitona-amonek gerra latza bizi izan zuten, eta beharrezkoa da gure ondorengoei hori transmititzea”

bai Euskal Herrian eta bai munduko beste edozein bazterretan ere. Gerra ez da kontu lokala, unibertsala baizik, eta liburua toki guztietako haurrak identifikatuta sentiarazteko bokazioa dauka.

Ze ekarpen egiten dute Maite Mutuberriaren ilustrazioak?

Hainbat lan egin ditugu elkarrekin. Izugarri gustatzen zait Maiteren estiloa. Kasu honetan koloreen bitartez egoera ezberdinak azaltzen ditu: tonu urdin eta berdeekin lasai hasten da, gero udazkeneko laranja eta lur koloreak erabiltzen ditu, dena ilunduz doa gerra heltzearekin bat, eta barneko bakea iristean tonu goxoetara itzultzen da. Maite ibilbide polita eta emankorra egiten ari da, eta duda barik liburua asko edertu du itxura liriko eta ameslaria eman diolako.



JOHN ANDUEZA
Idazlea



A la venta
el 14 de
septiembre

El ferrocarril subterráneo LA NOVELA GANADORA DEL PULITZER Y DEL NATIONAL BOOK AWARD

El libro del año que ha conmovido a más de 1.000.000 de lectores

www.literaturarandomhouse.com



Penguin
Random House
Grupo Editorial



Disponible
en audiolibro



Disponible
en ebook

Síguenos en:



KOMIKIAK, literaturzaletasunerako bide?

Egungo gazteen irakurzaletasun faltaren inguruko kezka orokortua dago azken aldian hezitzaileen artean zein literatura munduan. Agian komikia irakurzaletasuna pizteko bidea izan daiteke? Edonola ere, azken urteetan komikiak gero eta gehiago pasatu dira haur eta gazteentzako produktu izatetik helduentzako produktu izatera... Gai honen inguruan hausnartzeko Iratxe Retolaza eta Iban Zalduaren iritziak jaso ditugu.

Zalantzarik ez dago azken urteetan haur eta gazteei aisialdirako aukerak asko ugaitu zaizkiela: ikus-entzunezko eduki-kopuru itzela, bideo-jokoak, komunikatzeko aplikazioak eta sare sozialak... Panorama horren aurrean, logikoa dirudi gazteen liburuak irakurtzeko joeran beherakada egotea, gero eta gehiago salatzen den bezala.

Benetan hala gertatzen ote den galdetuta, Iratxe Retolazak (literatura irakaslea da EHUn eta "Eguno euskaletan komikiaren historia" liburua argitaratu berri du) zehazten du "haurren eta gazteen irakurri egiten

dute beren gailuetan, baina irakurketa-moldea aldatu egin da: azkarra, azalekoa, jauzikakoa...". Horrek ez dio literatur testuen irakurketari laguntzen." Iban Zalduak (idazlea eta Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazitakoa "Azken garaipena" komikiaren gidariarengatik) ere gazteen irakurzaletasuna "ziurrenik, literaturazaleok uste edo nahi genukeenaren azpitik" dagoela uste du.

Egoera honen aurrean, komikia izan daiteke literaturzaletasuna bultzatzeko bideetako bat. Izan ere, adin bat dugun asko horien bidez zaletu ginen liburuak irakurtzera. Iratxeren kasuan ere hala izan zen: "haurren zein gaztearen komikiak irakurtzeko ohitura handia nuen, eta liburu-formatuko lanak osorik irakurtzeko denbora pertsonal hori hartzen ikasteko funtsezkoak izan ziren". Ibanek diosku bere kasuan ere eragin zutela komikiak: "nire kasuan oso lotuta daukat, eta gainera ez diot komikia kontsumitzeaz utzi".

Gainera, Iratxe Retolazak uste du kasu batzuetan gaur egungo testuinguruan komikiak lagun lezakeela literatura-irakurle berriak sortzen, hainbat arrazoiengatik: "balio du liburu-formatuan irakurtzen ohitzeko, narrazio-teknika literarioetan trebatzeko, testuartekotasunarekin jolas egiten ikasteko eta literatur erreferentziekin, tradizioekin edo mitoekin familiarizatzeke."

Hori horrela izanik ere, haur eta gazteei zuzendutako komikiaren egoerak okerrera egin du hamarkada

batzuetatik hona. 50etik 80rako hamarkadetan komikien helburu-publikoa haur eta gazteak ziren, komikiak edozein kioskotan aurkitzen ziren, aldizkaria formatu ohikoa zen... 90eko hamarkadaz geroztik, AEBtako super heroien komikiak publiko helduari zuzentzen joan dira, Espainiako komikiak ere nobela grafikoa deituriko formaturantz eboluzionatu du, komiki-aldizkariak desagertzen joan dira...

Horrengatik, komikien eragina adin txikiroetan askoz txikiagoa da egun "aldizkari merkeenak, astekariak edo hilabetekariak desagertu edo asko murriztu diren neurrian", Ibanek konfirmatzen duenez. "Beste



JON ETA MIRKA
Harriet/Daniel Redondo
HARRIET EDICIONES



MOBILAK
Arantza Ibarra
BETA EDIZIOAK




**HABÍA UNA VEZ 100 MUJERES
QUE CAMBIARON EL MUNDO...
ESTAS SON SUS HISTORIAS**

Todas las niñas merecen crecer pensando
que pueden llegar a ser lo que ellas quieran.

#niñasrebeldes

www.cuentosdebuenasnochesparaniñasrebeldes.com



IGOR LETURIAren zenbait gomendio:



AZKEN GARAIPENA
(Euskadi Literatur saria 2012)
Iban Zaldúa/Julen Ribas
IKASTOLEN ELKARTEA
(Xabiroi aldizkaria)



BERMUDILLO 1
Thom Roep/Piet Wijn
TEBEOS
DOLMEN EDITORIAL



ASTERIX ETA PERTZA
René Goscinny/
Albert Uderzo
BRUÑO



LAS AVENTURAS DE
SPIROU Y FANTASIO
Jean-Claude Fournier
PLANETA



MARIE CURIE-
RADIOAREN AKTIBITATEA
Jordi Bayarri
IKASELKAR

alternatiba batzuk daude, albumetan. Posible da, baina ez dago horren eskuragarri, gurasoen aldetiko lan gehiago eskatzen du". Hala uste du Iratxek ere: "lehen komikiak kioskoetan eskura zeuden, eta gurasoak prentsa erostera joaten zirenean, haur edo gaztetxoei komiki-albuma edo aldizkaria erosten zitzaien".

Argitaletxeek eta hezkuntza-erakundeek haur eta gazteen esparruan ipuin eta liburu ilustratuen aldeko apustua egiten dute gaur egun. Baina agian komikia ere gehiago bultzatu beharko litzateke, literaturzaletasuna areagotu nahi bada. "Kontuan harturik eskaintza askotarikoa dela, komikiak eskolan presentzia izateko baldintza hobeak daude", Iratxeren ustez.

Euskarazko haur eta gazteentzako komikigintzari dagokionean, ezin da esan proportzionalki eta konparatiboki egoera hain txarrean gaudenik (behintzat gaztelaniari begiratzen badiogu), azken hamabost urteetan ezagutzen joan garen egitasmo berriei esker: gaztetxoentzako *Xabiroi* aldizkaria, haurren esparruan asko argitaratzen ari den *Harriet* argitaletxea... Baina "arazoa ez da proportzioa, zenbaki absolutuak baizik, eta hor gu ere oso gaizki gaude", Ibanen ustez, eta genero batzuen falta ere sumatzen du: "mainstream gehiago, pop kultura gehiago beharko genuke. Itzulpen gehiago beharko genituzke euskaraz, super heroien komikienak adibidez".

Kioskoen desagertzea eta bestelako zenbait faktorek ez dute bueltarik izango, baina argitaletxeek

adin-esparru horretarako komikien (berrien zein itzulpenen) aldeko apustua eginez gero, hezkuntza-erakundeek komikiak landu eta baliatuz gero, eta erakunde publikoek horrelako ekimenak bultzatuz gero, lortuko genuke ziurrenik komikien bidez gure haur eta gazteengan irakurzaletasuna areagotzea. Hala bedi.

Últimamente hay una preocupación generalizada entre las comunidades educativa y literaria respecto a la falta de afición a la literatura por parte de los jóvenes. ¿Quizás el cómic, en tanto que mezcla de literatura y dibujo, puede servir de aliciente para iniciar a la juventud en el hábito de la lectura? Sin embargo, y paradójicamente, en los últimos años venimos observando cómo el cómic está pasando de ser un producto mayoritariamente enfocado a los niños y jóvenes a estar dirigido a un público adulto.



IGOR LETURIA
Hezkuntza-teknologietan ikertzailea

KAREN
DIONNE

Cuando tu pasado
te persigue solo puedes
enfrentarte a él.



Un *thriller* psicológico
hipnotizador,
La hija del pantano
es la historia de una mujer
que debe arriesgar todo
lo que tiene para capturar
al peligroso hombre que
moldeó su pasado y
que ahora amenaza con
robarle su futuro:
su padre.

HarperCollinsIbérica
www.harpercollinsiberica.com

GINARRIZKO GRAMATIKA-LIBURU BERRIA

Euskara-ikasleentzako gramatika praktikoa argitaratu du Elkar Hizkuntzak zigiluak. Ulerterraza eta praktikoa da: hasierako, oinarritzko eta erdi mailako euskara-ikasleentzako azalpenak ditu eta ulermena egiaztatzeko ariketak biltzen ditu. Gramatika-liburuarekin batera lan-koaderno sorta kaleratu da.

Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa ezohiko gramatika-liburua da, koloretsua eta ilustrazioz betea. Batez ere **euskara-ikaslearentzako** kontsulta-liburua izanik, teoria modu xehean eta edonorentzat ulergarrian azaltzen da, teknizismoen erabilera neurtuz eta azalpenak oinarritzko **A1-B1** mailara doitu. Hizkuntzaren ikasketa-prozesuan sortzen diren zalantzak eta gehien errepikatzen diren akatsei arreta berezia jarri zaie, ikasleei eta irakasleei laguntzeko.

Edonorentzat kontsulta-liburu egokia

Gramatika-liburua bereziki A1-B1 maila bitarteko euskara-ikasleentzat sortua bada ere, duen egitura argiari esker, edonorentzat kontsulta-liburu egokia da, sarri sortzen diren hizkuntzaren erabilerrari eta idazkerari buruzko zalantzak argitzeko baliagarria.

Azalpen teorikoen ulermenerako lagungarri daude **adibide zehatzak**, **ilustrazioak**, **laburpen-etaulak** eta, aldioro, **ariketa** sorta laburra.

Kontsulta zehatzak egin ahal izateko, gramatika-liburuak bi aurkibide ditu, bata kronologikoa eta bestea gaikakoa, besteak beste, hizkuntzaren *erabilera desegokien* bilaketa ere ahalbidetuz. Eranskinean eskaintzen dira deklinabide-etaulak, aditz-etaulak, nominalizazio-etaulak, denbora adierazleak eta zenbakien idazkera.

Oinarritzko gramatika-liburuen ohiko edukiez gain, B1 mailara arteko beste hainbat eduki linguistiko ere jasotzen dira: *Bestelakoak* izeneko atalean azaltzen dira kantitate, neurriak, abiadura, eragiketa matematikoak, orduak edo datak, besteak beste; *Hainbat* *esapide* atalean kontsulta daitezke agurtzeko,

eguraldiaren berri emateko, ziurtasuna edo zalantza adierazteko, zoriontzeko edo barkamena eskatzeko esapide erabilienak, beste batzuen artean.

Teoria eta praktika

Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa bi aldaera izango ditu, bat Hegoaldeko erabiltzaileentzat eta bestea Iparraldekoentzat. Izan ere, erdarak lagungarri dira gramatika-liburu honetan: azalpenak euskara hutsez ematen badira ere, adibide gehienak gaztelaniazko edo frantsesezko ordainak dituzte.

Eduki gramatikal bakoitzaren azalpenaren ondoren ariketa laburrak proposatzen dira, azalpenak ondo ulertu direla egiaztatu ahal izateko, eta ariketa horien erantzunak ere liburuan bertan ematen dira.


Gramatika lan-koadernoak

Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa kontsulta-liburuarekin batera lan-koaderno arinak argitaratu dira. Hamabi lan-koadernoko sorta da, sei azpimailatan (A1.1, A1.2, A2.1, A2.1, B1.1 eta B1.2) eta lau eduki-multzotan antolatuta: sintaxia, deklinabidea, aditza eta bestelakoak (esapideak, orduak, kantitatea...). Gramatika-koaderno bakoitzak euskara lantzeko 65 ariketa inguru ditu, **5 euroan** salduko dira eta **15 x 25 cm**-ko tamaina eroso dute. Ariketek erantzun itxiak dituzte, liburuxkan bertan jasota, ikasleak era autonomoan ere erabili ahal izateko. Hori dela eta, gramatika-koaderno hauek egokiak dira **oporretako koaderno gisa**, euskara-ikasleak lantzen jarraitu ahal izateko, lehenago eskolan ikasi duena.



Prepárate para el cole con Usborne

www.usborne.es



GRAMÁTICA PRÁCTICA PARA EL ESTUDIANTE DE EUSKERA

GARMATIKA-KOADERNOAK



	Aditza + Denetarik	Deklinabidea + Sintaxia
A1.1	1	7
A1.2	2	8
A2.1	3	9
A2.2	4	10
B1.1	5	11
B1.2	6	12

Koaderno-zenbakia

Euskara-ikaslearentzako gramatika-koadernoak.

A1, A2 eta B1 mailetako 500 ariketa inguru, lau eduki-multzotan antolatuta: Aditza, Deklinabidea, Sintaxia eta Denetarik ordua, neurriak, esapideak, etab).

Ariketen erantzunak bertan.



Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa es una nueva gramática pensada y creada por profesoras de euskera para estudiantes de euskera de nivel inicial a intermedio **A1 – B1**, tanto de **euskaltegis** como de **Educación Secundaria Obligatoria** y **Bachillerato**.

Es una gramática fácil, clara y práctica. Las explicaciones gramaticales evitan en la medida de lo posible el uso de términos técnicos y utilizan un vocabulario adecuado al nivel. Para asegurar la comprensión de las explicaciones gramaticales, éstas van acompañadas de **ilustraciones**, **ejemplos en euskera y castellano**, **tablas-resumen** de cada apartado y breves **ejercicios** de respuesta cerrada. En el anexo se resumen los casos de la declinación, el verbo y otros contenidos de consulta más frecuente. *Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa* presta especial atención a los **errores habituales** en la interlengua de los estudiantes de euskera.

Cuadernos de ejercicios

El libro de consulta *Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa* se publica junto a los cuadernos de ejercicios *Gramatika-koadernoak*. Con un precio de solo 5 euros, y un cómodo tamaño de 15 x 25 cm, cada cuaderno contiene cerca de 65 ejercicios de respuesta cerrada para practicar euskera y mecanizar lo aprendido en clase o de forma autónoma.

Los cuadernos de ejercicios se organizan en seis subniveles (A1.1, A1.2, A2.1, A2.1, B1.1 y B1.2) y por dos bloques de contenidos específicos: por un lado, la declinación y la sintaxis, y por otro, el verbo junto a otras cuestiones como las cantidades, las horas, los números, etc, y expresiones más habituales. Por lo tanto, el estudiante de euskera podrá elegir el contenido en el que quiera practicar, con ejercicios adecuados a su nivel.

Según el plan de edición previsto, se publicarán los seis cuadernos de *Aditza + Bestelakoak* (Verbo y contenido diverso) en otoño de 2017, y los seis cuadernos sobre Declinación y Sintaxis a comienzos de 2018.



MIREN IRAETA
Kazetaria

GREGORIO LURI

ELOGIO
DE LAS FAMILIAS
SENSATAMENTE
IMPERFECTAS



EL LIBRO QUE DEFIENDE QUE
NO EXISTEN LOS PADRES PERFECTOS,
EXISTEN LOS BUENOS PADRES.



@EditorialAriel

Ariel
www.ariel.es

Imanol Urbietta MAITASUNA



XIRULA-MIRULA
Imanol Urbietta
ELKAR



AITONA-AMONEKIN KANTARI
Imanol Urbietta
ELKAR



GABON GAUEAN... XIRULA MIRULA
Imanol Urbietta
ELKAR



XIXUPIKA 1
Imanol Urbietta
ELKAR



XIXUPIKA 2
Imanol Urbietta
ELKAR



HAURTXOA BAT-HAUR KANTARI
Batzuk
ELKAR

Bir, bir, bir / biri-biri-bir / Hain txikia, hain pollita / mutur beltza, begi beltza / Biri-biri-bir / maite zaitut nik. Beti izango da kantu zoragarria... Zaharra da esaera inoiz inon inork zaharberritua, "asmaezinak dira jainkoen –eta ez jainkoen– bideak", eta abian naiz neure buruarekin batera Imanol Urbietaren kasuan zein bidek naraman kantu ttiki politt horretara, behin eta berriz eta askotan kantatu ditugun hitz apur horietara: *Biri-biri-bir / maite zaitut nik.* Hainbat kantu eta jolas ondu zituen Imanolek, eta neketan eta penetan aukeratuko du inork bat bakarra. "Ran-rover-ran", "Txoria nintzela", "Alaken", "Izarraitz, Ernio", "Atotxa girokoak", "Guk maite ditugu abereak", "Plisti-plasta, plisti-plaust!"... Kantu asko eta asko, eta asko baino gehiago, eman zizkigun Imanolek, eman zizkigun *Xirula-mirulak*, jolas gintzen eta kanta genezan. Alabaina, zer misterio, zer altxor gorde eta ezkutu dute Imanolen kantuek gure barru-barruan modu bero horretan josteko, gure gogo-bihotzetan hain luze irauteko?

Haren kantu-jolasek –*Zapi zuri honekin jolasten gara, orain alde batera, gero bestera...*– berdin balio digute eskolan haur eta neska-mutikoekin batera libritutuz ikasteko, etxeko txikiak goxo-goxo lotartzeko, edo

“Maitasunaren bideak
garamatza beti
Imanol Urbietta
jenioaren kantuetara”

gau parrandan kantatuz barre alarga galantak egiteko. *Biri-biri-bir / maite zaitut nik.* Hitz sotil eta xano horien atzean ez dago hizkuntzaren jolasak dakarren hitz joko ximplea eta maitasun handia besterik, Imanolek haurrei zien maitasuna, haurrek Imanoli zioten maitasuna. Haren bihotz handi maitasunez betea, *maite zaitut nik*, maitasuna da zabaltzen digun altxor-kutxatik irteten den uhin handi hori. Imanol Urbietta, *Xirula-mirula*. Maitasun ekintza zitzaigun kantu bakoitza, maitasun eder alai horren bidez sartu zitzaigun Imanol gure zirrikituetatik barruraino. Bertan egin zuen habia, joan-etorriko txartelik gabe, irteteko asmorik ez zuela. Maitasunaren jenioa zen Imanol, eta ez da komeniko gurasoek haren kantuak beren haurrei kantatzeari uzterik. Zaharra da esaera

inoiz inon inork zaharberritua, "osasunarekin batera, maitasuna dugu mundu honetako ondasuna", eta orain badakit, maitasunaren bideak garamatza beti Imanol Urbietta jenioaren kantuetara. *Bir, bir, bir / biri-biri-bir / Hain txikia, hain politta / mutur beltza, begi beltza / Biri-biri-bir / maite zaitut nik.*

Postscriptum-a: Ostiral ilunabarra. Fruta erosi beharrean, dendan. Neska txiki bat amaren erosketa-organ sartuta, kantari: *katuak miau, miau, miau, txakurrak uau, uau, uau... katuak miau, miau, miau, txakurrak uau, uau, uau...* "Guk maite ditugu abereak" da kantua. Neskatikoak ez du gainerakoa go-goan. Neure buruari ezin eutsi eta lagundu diot: *"arkumeak be, be, be!... txepetxak piripi, kilkerak kri, kri, kri, oilarrak kukurruku, kukurruku..."*. Horra Imanol bizirik!

MIEL ANJEL ELUSTONDO
Hizkuntzalaria



SUMÉRGETE EN UN MUNDO LLENO DE MAGIA...
Y SÍ, TAMBIÉN CON MÓVILES Y ORDENADORES

INGREDIENTES

Una competición de alquimia
Dos personajes con química
Una pizca de redes sociales
Y una dosis de suerte (buena o mala)

NOCTURNA
EDICIONES





+2




**NIRE
URTEBETETZEA!**
Liesbet Slegers
IBAIZABAL



**EN EL JARDÍN
(LIBRO GUANTE)**
Francesca Ferri
EDEBÉ

+2



SAGARRA
Olivia Cosneau
TARTTALO

+2

Txikienei natura ezagutarazteko kartoizko liburu politak bezain entretenigarriak.



**LA ORUGA,
LIBRO DE TELA
PARA ABRAZAR**
Eric Carle
KOKINOS

+2

A los bebés les encantará abrazar este suave y blandito libro de tela lleno de hermosas y brillantes ilustraciones de La pequeña oruga glotona.

+2



**ME ENCANTA
LA NATURALEZA**
Fiona Watt
USBORNE

+2



**MELODÍAS
PARA DORMIR**
Sam Taplin
USBORNE

Xabi itzartu eta orriz orri irakurleei bere urtebetetze jaian parte hartuko duten elementuen berri ematen die: koroa bat, girdandaz beteriko kutxa bat, koloretako puxikak...

Libro-guante con imágenes de animales de jardín.

Un libro que estimula los sentidos del bebé con llamativos dibujos, ranuras que repasar con el dedo, agujeros, solapas y diferentes texturas.

Será un placer compartir este libro con los chiquitines a la hora de acotarse. A los bebés les encantará apretar los botones que hay en cada página para elegir sus nanas favoritas y admirar las ilustraciones.

+4




**WAKOU
SUMENDIAK**
Pascale Hedelin
TARTTALO



**ERNESTO ETA ZELESTINA.
KALE MUSIKARIAK**
Gabrielle Vincent
PAMELA
KALANDRAKA

+4



**MI MUNDO DEL
1 AL 100
Y MUCHO MÁS**
Coralie Saudo
BRUÑO

+4



**BEA & GUILLE:
A BEA LE CUESTA
PERDONAR**
María Menéndez Ponte
LA GALERA

+4

Sumendiak edonon daude gure planetan: Hego poloan, Kanarietan... eta baita itsasoan ere! Kapela txinatarraren, ezkutuairen edo mahaiairen forma izan dezake sumendi batek, baina, kasu guztietan, erupzioak ikusgarriak eta arriskutsuak dira.

Une zailetan lagunak elkarren artean laguntzen dira. Hartz batek eta sagutxo batek musikan aurkituko dute etxeko diru premiari aurre egiteko modua.

Un álbum para acercar a los niños al fantástico mundo de los números.

Bea está de mal humor. No le gusta la lluvia y ahora está lloviendo a cántaros. Y Guille, su hermano pequeño, quiere jugar con ella. Los hermanos pequeños siempre andan molestando.

La nueva novela de Javier Marías

ALFAGUARA

Penguin
Random House
Grupo Editorial



www.megustaleer.com

Disponible
en ebook



+6



**ETA SAGARRONDOA
BANINTZ?**
Paddy Rekalde
ELKAR

Anartz ikaratuta dago: sagarra jaten ari zela, ha-
ziak jan ditu eta gogoratu da eskolan irakasleari
entzun diola hazietatik sortzen direla landare
berriak. Anartz beldur da sagarrondo bat ez ote
den bere baitatik sortuko.

+6



TONTOLAPIKO
Pello Añorga
DENONARTEAN

Tontolapikori barre egiten zioten lagunek: "Ton-
tolapiko, piko, piko, a zer mutiko barregarritzko".

+6



**RASI
IKERTZAILEA
SORTA
+ PANPINA**
Begoña Oro
Pradera
IKASMINA

Katagorri koadrilaren abenturekin, bi liburu eta
panpina jolasteko eta irakurtzeko. Hemen da
Rasi berriz ere! Panpina bat eta bi liburu pack
bat: "Katagorri bat nola kontzolatatu" eta "Txirri-
naren misterioa".


+8



**NUR ETA
IRLANDARAKO BIDAIA**
Toti Martínez de Lezea
EREIN

Suzhou-ko alde zaharrean dabilta Nur eta bere
lagun Liang, Ayana, Dmitri eta Hao Lin. Hiri ho-
rretan bizi dira. Bostak sartu dira denda batean,
denda magikoa dela esan du Ayanak...

+8



IXON
Ana Jaka
ELKAR

Ion du benetako izena, baina Ixon deitzen diote
beti isilik egoten delako, halako batean, hitz
egitea ere ahaztu duen arte. Etxetik joango da
orduan, eta abentura harrigarriak ezagutuko
ditu gero.

+8



**UN TRITÓN
EN LA MOCHILA**
Carlota Echevarría
SANTILLANA
LOQUELEO

Marcos viaja a Madrid con sus padres y su amigo
Teo para asistir a la fiesta de la revista Planeta
Tierra. Escondido en un bote de cristal va Ptolomeo,
un tritón inmortal! Marcos tiene grandes
planes para él.

+10



**FUTBOLÍSIMOS:
EL MISTERIO DEL DÍA
DE LOS INOCENTES**
Roberto Santiago
SM

El campo de fútbol del Soto Alto está en venta, y
no es una broma del día de los inocentes ¿será el
fin de los Futbolísimos? Es el día de los inocen-
tes. El día del cumpleaños de mi padre, y el peor
día del año para mí.

+10




**SI ES AMOR,
NO DUELE**
Iván Larreynaga/
Pamela Palenciano
ALFAGUARA

Disponible para
libbik

Pamela Palenciano sobrevivió a una relación
de maltrato que duró toda su adolescencia. En
este libro comparte lo que vivió y nos brinda una
mirada fresca e ingeniosa que analiza con pro-
fundidad la idea del amor romántico y cómo nos
afectan los roles de género.

+10



**OLYMPIA Y
LAS GUARDIANAS
DE LA RITMICA 2:
LA FABRICA DE
GIMNASTAS**
Almudena Cid
ALFAGUARA

Disponible para
libbik

Corren malos tiempos para la gimnasia rít-
mica. En muchas competiciones huele a gato
encerrado, las ritmiqueras empiezan a perder
la ilusión y los valores deportivos parecen ame-
nazados.

GAZTEAK



**Y LUEGO GANAS TÚ
(5 HISTORIAS CONTRA
EL BULLYING)**
Varios
NUBE DE TINTA

Disponible para
libbik

Uno de cada cinco niños en España sufrirá bul-
lying a lo largo de su vida escolar. Cinco influen-
cers de éxito se unen en este libro para contar
cinco historias de superación del acoso, algunas
de ellas autobiográficas.

GAZTEAK



**SOPHIE
EN LOS CIELOS
DE PARÍS**
Katherine Rundell
SALAMANDRA

Tras hundirse un barco en el Canal de la Mancha,
una niña de apenas un año aparece flotando en
un estuche de violonchelo y es rescatada por
un erudito y aventurero londinense llamado
Charles Maxim.

GAZTEAK



**ELURRAREN
FORMULA**
Jordi Sierra i Fabra
ELKAR

Disidente politikoentzako kartzela-eremu bate-
ra bidali dute soldadutza egitera Li Huan. Preso-
en korrespondentzia zentsuratzea egokitu zaio
irakurtzeko eta idazteko duen dohainei esker.

BLUME



16 páginas
24 x 28 cm
Cartóné
PVP 14,90 €



40 páginas
22 x 30 cm
Cartóné
PVP 11,90 €



36 páginas
26 x 35 cm
Cartóné
PVP 14,90 €

96 páginas
18 x 23 cm
Rústica con solapas
PVP 11,90 €



30 segundos



www.blume.net

LIBURUAK

GURASO ETA HEZITZAILEENTZAT



CAMA FAMILIAR, NOCHES FELICES
José Luis Segura
TXERTOIA

El libro cuenta la experiencia de una pareja que al llegar su primer hijo se dejó llevar por el instinto y descubrió, con sorpresa, con alivio y con indisoluble alegría, que otras noches son posibles.



CONTRA LA NUEVA EDUCACIÓN
Alberto Royo
PLATAFORMA EDITORIAL

Este ensayo se cimenta en la esperanza de que aún podemos cambiar las cosas, y por eso propone una reflexión lúcida, incómoda tal vez, sobre las variadas y sutiles maneras en que la educación se vuelve gaseosa.



HEZKUNTZARI BURUZKO TEORIAK ETA ERAKUNDE GARAIKIDEAK
Antoni J. Colom
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

Liburu honek bete nahi duen helburuetako bat ikasleak pedagogiarekin harremanetan jartzea da, hots, biharko irakasleak izanen diren ikasle gazte horiei pedagogiarekiko sarrera sakona eta zabala eskaintzea.



GENERO-BERDINTASUNEAN HEZTEKO GIDA
Luixa Reizabal
EHU

XXI. mendean oraindik haur eta nerabeek generoaren ikusmolde sexistaren araberako rol eta jokabide estereotipatuak garatzen dituzte. Hori ekidin ezean, eurek generoan oinarritutako diskriminazioa eta indarkeria fisikoa normalizat hartu eta eragiteko arriskua dago.



LOS PROBLEMAS EN LA ADOLESCENCIA
Estefanía Estévez
SÍNTESIS

Este libro aborda desde el punto de vista profesional, pero a la vez divulgativo, los principales problemas que pueden acontecer en la etapa adolescente, pues la adolescencia es una etapa vital de especial apertura al mundo y con complejos desafíos.



KONFIANTZAREN PEDAGOGIA: ARIZMENDI IKASTOLAREN MARKOA
Amaia Antero
ARIZMENDI IKASTOLA

Arrasateko Arizmendi Ikastolak bere azken urteetako hezkuntza-ikuspegia bildu du liburu honetan. Egile nagusia Amaia Antero da, baina, kooperatiba bati dago-kion bezala, ikastolaren "obra kolektiboa" da. Gaztekeraz eta ingelesez argitaratu da baita ere.



APRENDIZAJE EMOCIONANTE
Begoña Ibarrola
SM
Disponible para libbuk

Desde hace algunos años, los neurólogos se están introduciendo en el mundo de la pedagogía intentando convencer al profesor de que el cerebro de sus alumnos debe ser estudiado y comprendido para garantizar una mejora en el proceso educativo.



ADOLESCENCIA, MITOS Y ENIGMAS
Gerardo Castillo
DESCLEE DE BROUWER

Desmitificar algunos tópicos sobre la adolescencia y desvelar sus enigmas es de gran utilidad para padres y profesores, ya que les permite mejorar el conocimiento de sus hijos o alumnos.



EL CEREBRO DEL NIÑO EXPLICADO A LOS PADRES
Álvaro Bilbao
PLATAFORMA

Este libro es un manual práctico que sintetiza los conocimientos que la neurociencia ofrece a los padres y educadores, con el fin de que puedan ayudar a los niños a alcanzar un desarrollo intelectual y emocional pleno.



BULLYING CIBERBULLYING Y SEXTING
José Antonio Molina
PIRÁMIDE

En este libro encontrará información de lo que es el fenómeno del acoso, las formas que puede adquirir en el mundo virtual (*grooming*, *happy slapping*), las consecuencias que pueden derivarse o las estrategias de detección.



HELDUAREN AKONPAINAMENDUA HAURAREN GARAPENEAN-EMMI PIKLERREN IDEIAK
Batzuk
PIKLER-LÓCZY
EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

Haurri akonpainatzeak helduaren eginkizunaz hausnartzea eskatzen du, helburua ez baita besterik gabe estimuluak aplikatzea, baizik eta haurren ingurunean dauden pertsonen eragina antolatzea.

KEN FOLLETT

VUELVE CON LA ESPERADA CONTINUACIÓN DE LA SAGA

LOS PILARES DE LA TIERRA

UNA COLUMNA DE FUEGO

LA CONTINUACIÓN DE LOS PILARES DE LA TIERRA Y UN MUNDO SIN FIN

ASÍ SE ESCRIBE LA HISTORIA

Penguin Random House Grupo Editorial

Síguenos en: KEN FOLLETT

JOLASAK

Informazio gehiago:
<http://bit.ly/jolasak>



AUKERA ZABALA JOLAS HEZTZAILEEN GIDAN



NIRE TREN JOLAS TXIKIA

+18 hilabete | HAPE

Mugitu tren multzoa trenbidean barrena. Baina kontuz ibili zure banana-trena tximu bihurrien albotik igarotzen denean!



PICASSIMO

+8 años | HABA

Contiene 150 cartas con 900 términos en 3 niveles de dificultad diferentes. Quien acumule más puntos ganará el juego.



CUBISSIMO

+7 urte | DJECO

Egurrezko 7 piezekin kubo perfektua sortu beharko dute haurrek. 30 karten bidez kubo nola eta nondik osatzen hasi ezagutuko dute.



HOP & COUNT HOPSCOTCH RUG

+3 urte | MELISSA&DOUG

Saltoka zenbatzen ikasteko alfombra koloretsua.



SOLAR SYSTEM

+5 años | IMAGINAR KIDS

Espectacular puzzle de 48 piezas. El sol y los planetas cobran vida como por arte de magia con la aplicación de Realidad Aumentada.



EDURNEZURI

+4 urte | SMARTGAMES

Jolatu Edurnezuri jolasarekin pertsonaia etxe barruan euren lekuan kokatuz. Lagunduko al diezu zazpi ipotxei Edurnezuri bilatzen?



COUP + REFORMA

+10 años | ZACATRUS

Bakoitzak trebetasun bat du. Jo erronka zorteari kartekin irabazi nahi baduzu, eta egin ez zarenaren itxurak, baina bizkorra izan, pertsonaia bakoitzaren hiru karta daude.



MAGLEV TRAIN MODEL

+8 años | 4M

Descubre cómo funcionan los trenes Maglev súper rápidos usando el poder del magnetismo.



RAINBOW BALANCE

+3 años | MELISSA&DOUG

Balancín de madera con piezas multicolores. 10 piezas de madera en 5 longitudes.

Juega y aprende
con **APLI**
kids

Mosaicos de goma EVA



Ref. 15114
Savana

Ref. 15115
Flores

Juegos magnéticos



Ref. 16494



Ref. 16495

MUSIKA



TXIKIA IZANIK

Batzuk
ELKAR



Badira haur kantu batzuk, urteak joan, urteak etorri, iraun egiten dutenak, klasiko bihurtu zaizkigunak. Kantu horiek, duten musikaltatearengatik, duten erritmoagatik eta ederrak direlako, belaualdiz belaualdiz transmititzen dira.



ELEKTROBOOM

Pantxika
Solorzano/Xano
ELKAR



Aspaldian hasi zen Lapurdiko Pantxika Solorzano haurrentzako kantuak eta jolasak sortzen eta argitaratzen. Oraingo hau bere hirugarren lana da, proposamen ludikoa, jostaria, distiraz betea, publiko txikiak ederki ulertzen duen estilo elektronikoan oinarrituta.



ALTZA PELIPE!

Txirri, Miri
eta Txiribito
ELKAR



Euskal Telebistako beren azken saioan, pailazo ezagunek Joserra Senperena musikariaren laguntzaz famatu zituzten abestiak aurkituko ditugu disko honetan.



TIPI-TAPA, KORRIKA! HAIZEAREN HERRIRA-PIRRITX (LIB+2CD)

Pirritx, Porrotx eta
Marimotots
KATXIPORRETA



Haurrentzako pailazo ezagunen ikuskizun berria. Pupu, Lore eta aitona Manolo dira protagonista, musika asko dago tartean eta, oinarri-oinarrian, Imanol Urbieta zenaren kantutegia.



KATUEN TESTAMENTUA

Oskorri
ELKAR



Haur publikoari zuzendutako eta ia ahazturiko abestiak Marijane Minaberry-ren testuan osaturiko konposaketekin. Diska honetan bizkaieraz eginiko haur kantak jasotzen ditu taldeak.



LO LO MAITE

Antxon Sarasua /
Miren Fernandez
ELKAR



Haur txikientzako disko ederra prestatu du Antxon Sarasua musikariak. Alde batetik, sehaska kantak, eta, bestetik, haur oso txikiei abesteko kantu-jolasak bildu eta moldatu ditu. Kantu ezagun eta ez hain ezagunak, doinu goxoan, Miren Fernandezek abestuak.



ASTONAUTA

Ene Kantak
ENE KANTAK

Ba al dakizu zenbat planetek osatzen duen Eguzki-sistema? Edota, zein koloretakoa den ontiak botatzeko edukiontzia? Disko honekin espaziora bidaiatu ahal izanen duzu eta txikiak dantzan etengabe ariko dira.



EGIZU LO

Batzuk
ELKAR



Egizu lo disko eta urte ezberdinetan artista eta ahots ezberdinek grabaturiko euskal sehaska-kantarik esanguratsuenak eskaintzen dituen bilduma duzu.



HAURROCK

Haurrock
AGORILA



Astero, berrogi bat haur eta gazte talde bat elkartzen dira errepika saioak egiteko eta tarteka kantaldiak ere eskaintzen ditu. Philippe Albor-ek kudeaturik, Haurrock taldeak euskara biziartzatzen du, bere maneran. Gazteei zuzenduak diren testuak eta gaur egungo musikak. Eta pedagogia izpi bat...



BULUN BULUNKA

Olatz Zugasti
ELKAR



Hamalau sehaska-kantuz osatua dago Olatz Zugastiren bigarren diskoa. Angel Unzu gitarra-jotzaileak lagunduta, kantu goxoak sortu biltzen ditu, sentiberatasunez beteak.



ASKIO MAITE ZAITUT, NIK

Batzuk
ELKAR



Txikia izanik... eta Handitzen handitzen izenburuko umeen kantu-bildumen osagarri gisa bilduma erakargarria da honako hau. Aurreko lanetan bezala, hainbat egilerengandik heldu dira kantu ezagun hauek.



ÉLIEETTE ABÉCASSIS BENJAMIN LACOMBE

LA SOMBRA DEL GOLEM

La leyenda del golem narrada a través de los ojos de una niña

Un fantástico texto ilustrado por el talento de Benjamin Lacombe



EDELVIVES
www.edelvives.com


 Síguenos en
facebook.com/edelvives

ARIAN

MÉTODO DE EUSKERA
EUSKARA METODOA



EUSKARA ESKURA

LIBRO DEL ALUMNO

A1 A2 B1 B2

CUADERNO DE TRABAJO

A1 A2 B1 B2

MATERIAL AUDIOVISUAL

A1 A2

LECTURAS GRADUADAS

A1 A2 B1 B2



CURSO
2017/18
IKASTURTEA